

*“Urte luzeetako  
sufrimenduari  
amaiera bat emango  
zaio; asko pozten naiz”*

## **Amaieratik hasierara**



ETAk ibilbide armatuaren amaiera iragarri zuenean, Mari Carmen Hernandez eta Ibon Garate elkarrizketatu zituen ANBOTOK. Eurengana jo dugu berriro ETaren desagitea etorri denean, iraganaz eta etorkizunaz berba egiteko. • 2-3

*“Estatua ahalik eta  
gehien presionatu  
behar da, dispertsioa  
amaitzeko”*



**“Kirolene  
ezagutzera  
emateko balio izan  
du lehiaketak”**

**Jaialdia** | Kirolenek martxan jarri duen film laburren lehiaketako irabazleak datorren asteko jaialdian banatuko dituzte. Kimetz Iturralde durangarra ekimen honetako antolatzaileetako bat da.  
**26. orrialdea**



**‘Stronger Together’, hardcore  
doinu indartsuak Berriztik**

22. orrialdea

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

2000ko ekainean Hernandezen senarra, Jesus Mari Pedrosa, hil zuen ETAK. Hedabideetan agertzen diren biktimen mezutik urrun, elkarbizitzaren alde lanean dihardu. 2011ko urrian ANBOTOrri emandako elkarriketan, konponbidea lortzeko eskuzabalak izan behar dugula zioen, gaur errepikatzen duen mezu bera.

**Gaurko iragarri dute ETAREN desagertzea. Zer sentsazio duzu?**

Dagoeneko desagertuta zeudela ziru dien. Izan ere, behin armak utzita, lasaia bizi zara, beste giro bat egon da. Hilketarik eta estortsiorik ez egotea zen garrantzitsua. Baina urte gehiegi pasatu dira eta luze egin zaigu, ETAREN disoluzioa zelako itxaroten geunden. Zer helburu zuen disolbatu barik jarraitzeak? Urte luzeetako sufrimenduari amaiera bat emango zaio; asko poztentzen naiz disoluzio hori egiaztatuko delako.

**Orain egun batzuk mezu autokritikoa helarazi zuen ETAK. Zer iruditu zaizu? Balekoa izan al da?**

Barkamen selektiboa eskatu diete euren arabera gatazkan zeikusirik eduki ez dutenei. Nortzuk dira? Gurago nuke barkamen hori ez balute eskatu; niri, behintzat, ez dit ezer esaten. Hainbeste denboran egindako mina justifikatu egiten dute era batean. Zer lortu da? Heriotzak, familiak apurtzea... Nire senarra, adibidez, alderdi politiko batean zegoen, herriaren alde lan egiten. Hiltzea merezi zuen? Errekonozimendu hori mina justifikatu barik egin behar lukete. Badirudi ETAK bere iragana zuritu gura duela, errudun nagusiak eurak direnean. Edozelan ere, barkamena gutxienekoa dela uste dut; bakoitzak errekonozimendu kritiko bat egin behar du. Iragna ez da bueltatzen, eta orainera eta etorkizunera begiratu behar da.

**Biktima batzuek jarrera gogorra agertu dute egunotan...**

Denon artean elkarbizitza eraikitzen joan behar dugula uste dut, eta modu horretan zaila da. Jende asko ari da pausoak ematen, biktima asko gara beste ildo batean gaudenak. Gertatzen dena da guri ez zaigula

“**Gurago nuke barkamen hori eskatu ez balute; niri, behintzat, ez dit ezer esaten**”

hainbeste entzuten, baina beste horiek biktimen kopuru txiki bat ordezkatzeko dute. Langraitz bideko presoekin egon izan naiz, eta haxe ondorioztatzen dut: zigorra bete ostean, bergizarteratzeko eta euren bizitzagaz jarraitzeko eskubidea dutela. Gainera, uste dut presorik gehienak ez zirela izan nor hil behar zuten pentsatu zutenak, eta benetan pentsatu zutenek baino

## “Jende asko ari da elkarbizitzarako pausoak ematen, biktima asko gara beste ildo batean gaudenak”

Gorrotuari heldu barik, jarrera eraikitzailea azaltzen du Hernandezek, eta presoen dispersioa amaitzea eskatu du



**Mari Carmen Hernandez Sanchez**  
ETAK hildako Jesus Mari Pedrosaren alarguna

**Durango**

ardura gutxiago dutela. Asko gorrotorean eraginpean eta giza eskubideen errespetutik urrun hezi ziren. **Dispersioaren aurka azaldu izan zara aspalditik.**

Nik hasieratik uste izan dut senideek ez dutela zertan sufritu, eta dispersioak ez zuela existitu behar. Senide batzuek ezin dute ezta joan ere egin. Zer inporta du zigorra han edo hemen bete? Gainera, orain jada ez du inolako zentzurik. Kartzela onuren alde ere banago, horiek irabazten badituzte. Hori bai, egin dutenek zigorra ordaindu behar dutela ere uste dut. Bestalde, esan beharra dizut preso batek gutun hunkigarri bat bidali zigula etxekoei Gabonetan, gure egoeraz kezkatuta, eta uste dut hori dela bidea. Bere baitan ere hobeto sentituko dela uste dut.

**Elkarbizitzaren aldeko beste ekimen batzuetan ere ibili zara.**

Ikastetxeetan berbaldiak egiten dituen *Adi-Adian* programan nabil, eta orain, gainera, unibertsitatean

ere egoten gara. Jende oso desberdina joaten gara, baina guztiak mezu beragaz, eta hori da positiboa. Gure lekukotza modu eraikitzailean ematen dugu, gorrotorik barik. Bizi izan dugun sufrimenduaren historia ezagutzeko asmoz, akatsetatik ikasi eta berriro halakorik gertatu ez dadin. Gazteek ez dute ideiarik ere hemen sufritutakoaz, etxeetan ez delako barbarik egin. Euren ere galderak eta hausnarketak egiten dituzte. Hunkigarria izaten da eta aberastuta irteten zara. Bestalde, Asun Lasagaz [GALEk hildako Joxean Lasaren arreba] ere zenbait mahai-ingurutan parte hartu izan dut; azkenekoan Altsasuko gazteen ama batek parte hartu zuen.

**Zurea bezalako kolpe pertsonalak gainditzeko prozesuak ez dira errazak. Jendearen babesa sentitu duzu?**

Oso eroso egon zaitezke zuloan. Handik irteteko, esfortzu bat egin behar duzu. Indar bati heltzea behar duzu gorantz egiteko. Bada-

go jende bat oraindik barbarik egiten ez didana, eta kasu batzuetan

“**Sufrimenduari amaiera emango zaio; asko poztentzen naiz disoluzio hori egiaztatuko delako**”

“**Nik hasieratik uste izan dut senideek ez dutela zertan sufritu, eta dispersioak ez zuela existitu behar**”

beldurratetik izango dela uste dut. Bakoitzak jakingo du. Baina, bestelakoan, jendearen beroa sentitu izan dut. Esaterako, Bateginez elkartekoek [Gobernuz Kanpoko Erakunde horretan urte askotan parte hartu zuen Hernandezek] asko lagundu zidaten; AEKn euskara ikasten egon nintzen, eta irakasleek idatzi zidaten hilketa gertatzean. Edurne Brouarden oso laguna naiz, eta Glenree inizatibagaz Irlandan egon ginen biok. Bestalde, ni eliztarra naiz, eta aipatu behar dut elizaren partetik umezurtz sentitu naizela, ez didatelako mezu bakar bat ere helarazi.

**Legebiltzarreko bake ponentzian ere parte hartu duzu. Ez doa aurrera.**

Bakarka egonda, hausnarketak oso onak ziren. Baina, gero, alderdi politikoaren irizpideei jarraitzen diete. Gure ordezkariak dira, eta eskuzabalagoak izan beharko lukete. Akaso zu eta biok ezingo gara adiskidetu, baina errespetuan elkarregaz bizi, bai. Hori da lehen pausoa.



**Ibon Garate  
Gonzalez de Artaza**  
Bisitara bidean hildako  
Ruben Garateren anaia  
**Otxandio**

## “Nire anaia hil zuen biolentziak hortxe jarraitzen du oraindik”

Dispertsioak arrazoi politikoa duela salatu du otxandiarrak, eta senideek bizi duten arriskuaz ohartarazi du

**DURANGALDEA** • MARKEK ONAINDIA

**2000. urteko otsailean Ibon Garateren anaia, Ruben, hil egin zen preso bati bisita egiteko bidaian istripua edukita. Guztira, 16 dira dispertsioaren eraginez hildako senideak, eta politika horri amaiera ematea aldarrikatu du Garatek, orain zazpi urte eginiko elkarrizketan bezala. Gaur egun lehengusua du kartzelan.**

**Zelan jaso duzu ETaren amaieraren iragarpena?**

Nire ustez, albiste ona da. Orain ikusi egin beharko da zelako ondorioak dituen estatuaren partetik. Egia da orain arte ETak egindakoak ez duela ondoriorik eduki dispertsioari begira. Estatuak beti eduki du aitzakiaren bat: su-etenaren egon arte zen lehen, armak entregatu arte gero, barkamena ostean, orain disoluzioa... Esperientziak diosku estatua ez dela mugituko, eroso dagoelako egoera horretan. Azken finean, dispertsioa amai-

tzea erabaki politikoa bat izango da. Orain ez du aitzakiarik eta, nire ustez, ahalik eta gehien presionatu behar da pauso hori emateko. **Zazpi urte pasatu dira behin betiko su-etenetik. Zer ondorio ateratzen duzu?**

Dispertsioaren ikuspuntutik, egoera ez da batere aldatu. Aieteko deklarazioan enplazamendu batzuk egin zitzaizkien estatuei, eta espektatibak sortu ziren. Baina ikusi da ez dutela ezer egin. Presoek urrunduta jarraitzen dute. Frantziar pauso bat eman dute, txikia, baina norabide onean emandakoa. Ez legoke txarto Espainiak ere berdina egitea.

“**Biktima jakin batzuk daudela esaten da; noski daudela, nire errespetu guztia dute**”

**Gaurtik aurrera bakea helduko al da?**

Jende batek hori pentsatu dezake, baina ez da horrela. Nire anaia hil zuen biolentziak hortxe jarraitzen du oraindik. Astebururo-astebururo ehunka pertsonak euren bizitza arriskuan jartzen dute bere senideekin 40 minutu egoteko. Esperantza sekula ez da galdu behar, baina gure sentsazioa da ez dela ezer aldatu.

**Senideek izandako istripuak gertatu dira azken urteetan ere. Suposatzen dut horrelako momentuetan etxekoel barrena astinduko zaituzela.**

Bai. Argi dago, berpiztu egiten da. Istripua ikusten duzunean, bisita bat egitera joan eta anaia istripua eduki zuen lekutik pasatzen zarenean... Denok ezagutzen dugu bisitan joango den bateren bat, eta beti zaude zerbaite gertatuko ote zaion arduran. Hori beti egongo da hor. Trafikoko portzentaje bat da, edozein momentutan egon daiteke beste hildako bat. Eta nabarmendu gura dut erabaki politikoa dela, inongo legerik ez du esaten preso batek Puerton bete behar duenik zigorra.

**Biktimizez sarri egiten da berba. Zu ere biktima sentitzen zara?**

Bai. Politikariek erabiltzen duten erreminta baten biktimak gara. Baina, esan behar da onartu bako biktimak garelako, hirugarren mailakoak. Biktima batzuk instituzionalki onartuta daude; beste batzuk hortxe dabilta onartuak izateko borrokan, beste maila batean; eta gero beste batzuk gaude, existitu ere egiten ez garenak eurentzat. Hedabideetan ere beti biktima jakin batzuk daudela esaten da;

badaude, noski, eta nire errespetu guztia dute. Baina beste errealitate hau bizi dugunok ere gure testigantza ematea oso garrantzitsua dela uste dut. Egia Zor fundazioan ere banabil parte hartzen, eta nik ere ez nekizkien kasu batzuk ezagutu ditut.

**Instituzionalki ez, baina gizartean babestuta sentitu al zarete?**

Uste dut gizartearen babesa eduki dugula, eta instituzionala ez. Beste biktima batzuk daude babes instituzionala eduki dutenak, baina gizartearena ez. Babes sozialak sekulako garrantzia dauka. Bakarrik ez sentitzeak sekulako babesa ematen du.

**ETAren desegiteagaz, hurrengo hilabeteetan zer pauso eman beharko litzateke?**

Argi dago: presoak gerturatu, lehenik gaixorik daudenak eta hiru laurdenak beteta dituztenak, adinekoak... Logika apur batez, hori egin beharko lukete.

**Gaur egun lehengusua bat duzu kartzelan, Luis Enrique Garate.**

2011n elkarrizketa egin genuenean Parisen zegoen, eta orain Puerto de Santa Marian (Andaluzia). Kilometroei begiratzen badiegu, apur bat urrunago dago.

**Zertan lagunduko lieke senideei dispertsioa amaitzeak?**

“

**Esan behar da onartu bako biktimak garelako, hirugarren mailakoak**”

■

Gaur egun presoak kondena bat betetzen ari dira, eta gu ere bai. Dispertsioa amaitzean, gure kondena bukatuko da. Nik ez dut ezer egin; senide batek ez du aukeratzen senide izaterik. Tokatu egiten zaizu, eta edozein ideologiatakoa izan zaitezke. Kondena itzela da: bizitza, denbora, dirua... Guztia baldintzatzen digu.

**Zelakoa izaten da Puerto de Santa Mariara bidaia?**

Gasteiztik autobus bat irteten da barikuetan, 20:00etan, eta hara biharamuneko 08:00etan heltzen gara. Bisita egin eta buelta, domeka goizean ailegatuta. Hegazkinean joatea ere probatu izan dut: Gasteiztik [bertan bizi da orain] autoz Bilbora. Bilbotik hegazkinez Madrilera. Madrilen terminala aldatu eta Jerezera beste hegazkin bat. Handik Puertora. Han autobusa hartu, eta autobusik ez badago, taxi bat, eta kartzelaraino. 40 minutu egon. Gaur pasatu eta berriro hegazkina hartu... Azkenean, antzerakoa da autobusez eta hegazkinez. Bestalde, 130 bat euro gastatzen ditugu bisitako.

**Senideek beti esan izan duzue bisitak egiten jarraituko duzuela, egoera zaila izan arren ere.**

Noski. Gure senideak dira, eta maite ditugu. Horregatik goaz bisitatzerako. Gainera, bisita egitea gure familia eskubidea bermatzea ere bada. Ez da kapritxo bat, giza eskubide bat da, eta guk 1.000 kilometro egin behar ditugu betetzeko.

**Zer esperantza edo amets duzu?**

Gatazka amaituta egotea eta euskal gizarteak erreferendum baten bitartez estatuekin zelako erlazioa eduki gura duen erabakitzea.

# Ama izateagatik kaleratutako emakumea “diskriminatu” egin dutela ebatzi dute epaitegiek

Orain aste bi kaleratutako sententziak arrazoa eman dio salaketa jarri zuen emakume zornotzarrari

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Epaitegiek arrazoa eman diote Abrasivos Texajax enpresako emakume langileari, “ama izateagatik” kaleratu dutela salatu eta gero. “Langileak sexu arrazoiengatik diskriminatua ez izateko duen oinarriko eskubidea urratu du salatutako enpresak”, dio sententziak. Idatzi horrek gaineratzen duenez, “amatasunari lotutako atsedendiak eragin du enpresak langilea kaleratu gura izatea kalte-ordaina eskainiz”.

Zalao Ibeas de la Cruz LABeko idazkaritza feministako kideak azaldu duenez, emakumea ama

**“Langileak sexu arrazoiengatik diskriminatua ez izateko duen eskubidea urratu du enpresak”**

**LAB: “Emakumeari kalte-ordaina ordainduta kaleratzea proposatu zioten”**

izan ostean lanera itzultzera zihanean, “enpresak kalte-ordaina ordainduta kaleratzea proposatu zion, bere lanpostuan gizon bat zegoela argudiatuz. Beraien ez zutela kontziliozko neurri hartu gura, eta kalte-ordainagaz kaleratzea proposatu zioten”. Langileak bere lanpostua mantendu gura zuela erantzun ziela azpimarratu du LABek, eta argi gelditzen dela “ama izateagatik” kaleratu gura dutela. “Zazpi urtean ez du inolako arazorik izan lanean, eta, beraz, oinarrian ama izatea da kaleratzearen arrazoa”, azaldu du.

# Indiako sukaldari batzuekin esperientzien elkartrukea landu du Saltsan Katerineko Iñaki Uribe

Delhin egon da Uribe, hango ‘catering’ enpresa bateko kideekin lanean; han ikasitakoa hemengo gastronomian erabiltzea da bere asmoa, bertakoaren eta kanpokoaren fusioa landuz



Uribe, Delhi sukaldari batzuekin ateratako talde argazkian.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Saltsan Katerineko Iñaki Uribe ez da geldirik egotekoa. Beti darabil ideien bat buruan. Beti sukaldaritzari kolore edo forma berriren bat txertatu guran, artista batek sormenagaz duen ardura grina-tsua bezala. Ardosaltsan azokaren sortzaileetako bat dena, Yosemiteko (AEB) parke naturalean asteburu osoko catering bat prestatzen ikusi ahal izan genuen, adibidez. Oraingoan, bere jakin-minari bide emanez, Indian egon berri da, hango sukaldaritzak sakonago ezagutzeko asmoz. Han ikasitakoa eta handik ekarritakoa hemengo sukaldaritzagaz nahastea da bere helburua, batez ere Eguensaltsan ekimenean eskaintzeko.

Uriberen lagun batek Special Olympics gobernuz kanpoko erakunde egiten du lan, eta hari esker egin du Indiara bidai. Erakundearen Indiako ordezkariak

gonbidatuta joan da, hark ere catering enpresa bat dauka eta. Horrela, enpresa horretako sukaldariekin elkartrukea lantzeko aukera edukiko du. Delhin egon da, eta pozik bueltatu da han ezagututakoagaz. Hemengo sukaldaritzagaz aldearata, desberdintasun handiak dituztela nabarmendu du. “Espe-

**Lagun batek Special Olympics gobernuz kanpoko erakunde egiten du lan**

**“Plater bat egiterakoan, 17 espezia desberdin zenbatu nituen!”, azaldu du Uribe**

zia asko erabiltzen dituzte, baina baita esneak, koko esnea, gurinak, fruitu lehorren pureak... Plater bat egiterakoan, hamazazpi espezia desberdin zenbatu nituen!”, azaldu du Uribe.

Han ikusi duena bere sare sozialetan eskegitzen joan da egunero. Plater hau, esaerako: “Dilistak eta babak nahastu, eta labe batean tenperatura baxuan gau osoz egiten dute. Gero, espeziakin nahastu eta gurina ere gehitzen diote”.

**Eguenetarako ideiak**

Eguenero Eguensaltsan izeneko dastaketa eskaintzen du Uribe; arrakasta handia dauka, abendura arte erreserbak agortuta daude eta. Bertan erakutsiko du Indian ikasitakoaren lagin bat. “Nire asmoa plater originalak egitea da. Igual espeziak ipiniko dizkiet, baina gurinik akaso ez; hori da fusioa, gure erara ipintzea”, adierazi du.



Apirilaren 10ean egin zuten epaiketa, Bilboko auzitegian.

**anboto** komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko maiatzaren 4a  
16. urtea - 719. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

LAGUNTZAILEAK

# “Ateak zabaltzea beharrezkoa da gure ohiturak ezagutzera emateko”

Durangoako andaluziarren elkarteak astebururako antolatutako feriaren berri eman du Belen Piñero presidenteak



**Belen Piñero Varea**  
Andaluziarren  
elkarteko presidentea  
**Durango | 1972**

## DURANGO • MARKEL ONAINDIA

**Ba al zenekiten Durangon ere chirigota bat egon zela sasoi batean? Andaluziarren elkartearen presidentea Belen Piñeroren aita izan zen talde horren sortzaileetako bat. Hain justu, astebururako antolatu duten Andaluziako Azokaren prestaketetan murgilduta dabil alaba. Bazkideei deiak egin, nebari egitarauaren diseinua eskatu, barra muntatu... Gaur 19:30ean zabalduko dituzte ateak Landako Gunean, domeka arratsaldera arte. Piñero Durangon jaioa da; euskara darabil ahoan, eta Cadizeko giro beroa odolean.**

### Zergatik antolatzen duzue azoka? Zein da zuen asmoa?

Gure kultura zabaltzen jarraitzea da gure helburua, jendeak ezagutu dezan eta parte hartu dezan; horrela, integrazioa sustatu dadin.

### Landako Gunera joatera animatzen denak, zer topatuko du?

Dantza asko! Gure feria dantza da. Aurtengo nobedade nagusia paella-jana izango da, zapatuan. Goizean sevillana lehiaketa eta arte martzialen erakustaldia egongo dira, eta arratsaldean folklorea, bai kanpokoen bai gure elkartearen taldeena. Gaur ere nahiko indartsu hasiko gara, moda flamenkoaren desfileagaz eta jantzi baten zozketagaz.

### Zein izango da zuretzat ekitaldirik gustukoena?

Ez da erraza, gauza bakoitzak bere erakarmena duelako. Niri dantzak

### Aita Durangoko chirigotaren sortzailea izan zen 80ko hamarkadan, eta 8 bat urtez egon ziren”

gustatzen zaizkit batez ere; oso dantzaria naiz. Pentsa, Kurutzia ikastolako sukaldean egiten dut lan, baina udal kiroldegian ere zumba, gimnasia eta bestelakoak irakasten ibiltzen naiz.

### Zuen elkartearen ikastaro zabalak eskaintzen dituzue, herrira zabaltzeko asmo horren adibide.

Bai. Ateak zabaltzea beharrezkoa da gure ohiturak ezagutzera emateko. Gero, gauza asko eskaini behar dituzu, jendea erakarri ahal izateko. Sevillan oinarritako ikastaroa eta garatua ematen ditugu, flamenkoa, kriskitinen inprobisazioa, ikastaro intentsiboak... Azoka osteko hurrengo asteburuan runba flamenkoaren ikastaro intentsiboa ere antolatuko da. Umeentzat ere ikastaro berezi bat sortu gurako genuke; adin zailean daude, eta kultura transmititzeko beharrezkoa da lanean jarraitzea.

### Zu, jaiotzez, hemengo zara, ezta?

Ni Durangon jaioa naiz, Alde Zaharrean, Artekalen. Nire ama Errioxakoa da eta aita Cadizkoa zen. Txikitatik joaten izan naiz Cadizera. Aitaren anaia dago han, baina, horrez gainera, inguru hura gustatzen zaidalako ere joaten naiz. Paradisu bat da niretzat; asko lasaitzen nau hango energiak.

### Eta zelan egin zenuen harremana Durangoko andaluziarren zentro kulturalagaz?

Nire aita zentrorra joaten zen. Durangoko chirigotako zuzendaria izan zen 80ko hamarkadan, eta 8 bat urtez egon ziren taldeagaz. Hasieran lagun pilo bat zebiltzan, hamabost bat uste dut. Gaur egun 73 bat bazkide gara elkartearen, eta 11 lagun gaude zuzendaritzan. Durangoko andaluziarrik gehienak nagusiak dira.

“

### Gaur egun 73 bat bazkide gara elkartearen, eta 11 lagun gaude zuzendaritzan”

—

### Azken urteetan asko berba egin da andaluziarrez eta euskaldunetz.

Topikoak batzuetan gezurrak dira, bai hangoak eta baita hemengoak ere. Gehiegizkoak. Alde batetik, ondo dago, iparra eta hegoa lotzen dituelako. Gainera, hemengo jende pilo joaten da, adibidez, Cadizera. Kaletik bazoaz, hemen baino euskara gehiago entzuten da kasik. Hala ere, izateko era desberdinak ote diren edo ez, sentsazio hori pertsonala dela uste dut.

### Dena ez da umorea. Integrazio arazorik izan zenuten?

Nik ez nuen ezer igarri. Nire aitak eta ingurukoek baietz imajinatzen dut. Sasoi hartan, elkartetik zerbait egin eta eurek bakarrik joaten ziren, familiak eta ingurukoak. Orain desberdina da.



Jaime Intxausti, astelehenean, dituen hiru auto klasikoetako batean.

# “Automobilaren historia zaintzea dugu helburu, eta udalak kontuan hartu behar luke”

Auto klasikoen zale talde bat elkarte sortzen dabil Durangaldean; astelehenean erakusketa egin zuten

## DURANGO • M.O.

Auto klasikoen erakusketa prestatu zuten astelehenean Durangon, Herria auzo elkarteak antolatutako jaien baitan. 55 auto klasiko eta moto bi eraman zituzten, eta jende askoren interesa piztu zuten. Durangaldean zale asko daude, eta hamar bat elkarte sortzen dabilta.

Izan ere, ekintzez aparte aldarrikapenak ere badituzte. Durangon ezarri dieten zergagaz haserre daudela dio Jaime Intxaustik. “25

### 55 auto klasiko eta moto bi eraman zituzten, eta jende askoren interesa piztu zuten

urtetik gorako autoengatik, orain hiru urtera arte ez zen zergarik ordaintzen. Bat-batean, historiko lez katalogatuta egon ezik, denetan moduan ordaindu behar zela era-

baki zuen udalak. Guk auto hauek ez ditugu egunerokoan erabiltzen; automobilaren historia zaintzea da gure helburua, eta udalak kontuan hartu behar luke hori”. Euren iritzia eman eta eztabaidatu gura dute, baina udalari eginiko eskaerak eta idatziak “erantzun barik” geratu direla salatu du Intxaustik.

Afizioa aita mekanikariaren-gandik dator. 49 urteko Seat 850 bat, 50 urteko Seat 850 Coupé bat eta 47 urteko 600 bat dauzka. Bere ezkontzan helduera elegantea egin zuen: “Andrea 600ean heldu zen ezkontzara, eta ni 850ean”.



Faxistek Andikona plaza bonbardatu zuten 1936an.



**Egurrez egindako anfiteatro berria zabalik dago joan zen barikuaz geroztik**

**MALLABIA • J.D.**

Astebete darama zabalik herriko plazan egin duten egurrezko anfiteatro berriak. Iazko irail amaieran hasi zituzten lanak eta zazpi bat hilabete iraun dute. Neguko euriteek lanak arinago amaitzea eragoztzi dute.

Estalpean umeentzako hainbat jolas jarri dituzte. Alde batean, txirrista bat dago eta, beste aldean, estalkiko aldapan gora eta behera ibiltzeko sokak eta heldulekuak jarri dituzte. Goiko aldean, pedal estatikoa duten tresnak ipini dituzte, nagusiek ariketak egiteko. Igor Agirre alkateak guraso elkartekoekin batzeko asmoa duela adierazi du, estalpea zer gehiagorekin hornitu daitekeen iritziak jasotzeko.

## Frankismoko biktima izan zirenen testigantzak jasoko ditu udalak ekaina amaitu bitartean

Argentinako kereilara batzeko eta Durangoko auzitegian salaketa jartzeko txostena osatuko dute herritarren testigantzekin

**OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO**

Frankismoak Otxandion eragin zituen krimenak eta gehiegikeriak txosten batean jaso eta auzitegira bideratuko ditu udalak. Bide bi erabiliko ditu: Argentinako kereila eta Durangoko auzitegia. Batean zein bestean aurkeztuko duten txostena frankismoko biktima izan zirenen herritarren testigantzekin osatu gura dute eta, horiek jasotzeko, arretarako gune bat zabaldu dute udaletxean maiatzaren hasi eta ekaina amaitu arte.

Frankismoko biktima izan zirela sentitzen duten herritarrek astelehenetik barikura udaletxeko ordutegian bertaratu daitezke euren lekukotza eskaintzera, 08:00etatik 15:00etara. Goizean joan ezin denak arratsaldean ere izango du aukera, baina, horretarako, udaletxera deitu eta ordua hartu beharko du.

Testigantzak udalak landutako txostenari gehituko dizkiote. Ondoren, Durangoko auzitegian salaketa jartzeko eta Argentinako kereilara batzeko erabiliko dute txosten hori.

**Ibargutxiren hitzaldia**  
Nor kontsideratzen da biktima eta nor ez? Zer prozedura jarraituko dira salaketetan? Galdera horien eta beste batzuen gaineko argibideak emateko, hitzaldi bat antolatu du udalak maiatzaren 10erako, 19:00etan, Otxandioko kultur etxean. Frankismoko krimenen kontrako euskal plataformako kidea den Josu Ibargutxi izango da hizlaria.

**Gaian aditua den Josu Ibargutxik argibideak emango ditu maiatzaren 10eko hitzaldian**

deak emateko, hitzaldi bat antolatu du udalak maiatzaren 10erako, 19:00etan, Otxandioko kultur etxean. Frankismoko krimenen kontrako euskal plataformako kidea den Josu Ibargutxi izango da hizlaria.

**Arreta gunea udaletxeko ordutegian zabalduko dute; arratsaldean joateko, ordua hartu behar da**

**Ibargutxiren hitzaldia**

Nor kontsideratzen da biktima eta nor ez? Zer prozedura jarraituko dira salaketetan? Galdera horien eta beste batzuen gaineko argibi-

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

Garagardo Azokaren bigarren aldia antolatzeko, Mañariko Udalak bidelagun bat aurkitu du: Garai Brewing eskualdeko garagardo ekoizlea. Bien elkarlanari esker, maiatzaren 26an askotariko garagardoak dastatzeko aukera egongo da.

Garagardo artisau-eran egiten duten hainbat postu jarriko dituzte, 18:00etatik gauerdira bitartean. Iazko lehenengo aldiko arrakasta ikusita, aurren sei ekoizle gonbidatu dituzte, iaz baino bi gehiago: Garai Brewing Company, Baobeer, Garagart, La Txika de la Cerveza, Boga eta Txorierra Garagardoak. Edariari laguntzeko, *food truck* edo janari furgoneta bi jarriko dituzte: Thate streetfood eta Gelati Gelati.

Bestalde, 18:00etatik 19:00etara, garagardogileen postuetan dastaketa gidatuak egiteko aukera eskainiko dute. Horrez gain, Elortegi anayak, Mud Candies eta Ou Mama! taldeek jai-giroa jarriko dute.

**Doako autobusak**

Azokarako joan-etorria autoa hartu barik egin gura dutenek badute ho-

## Garagardo artisau-eran egiten duten sei ekoizle batuko ditu Mañariko azokak maiatzaren 26an

Garai Brewing Durangaldeko garagardo ekoizleak antolatuko du azoka, 18:00etatik gauerdira bitartean

**Iazko lehenengo aldiko arrakasta ikusita, aurren sei ekoizle bi gehiago gonbidatu dituzte**

**Elortegi anayak, Mud Candies eta Ou Mama! taldeek musikagaz girotuko dute azoka**

rretarako aukera. Azokara joateko autobusak 18:00etan, 20:00etan eta 21:00etan irtengo dira, Durangoko Madalenatik. Bueltarako autobus bi egongo dira, 22:30ean eta 23:30ean.



Garai Brewingeko Ekaitz Alberdi eta Mañariko alkate Endika Jaio azoka iragartzen.



## IURRETA

### **Tellitu-n** **udaberrian** **hasiko gara** **eraikitzen**

3 logelatako  
6 etxebizitza

2 logelatako  
11 etxebizitza

Garajea eta  
trastelekua barne



## DURANGO LANDAKO GUNEA

*Durangoko herrigunean,  
bista ederrekin*

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)



## Iurretarek herrian izandako azken eraso sexista gaitzetsi dute

**IURRETA** • AITZIBER BASAURI

Azken eraso sexista gaitzeste-ko, elkarretaratzea egin zuten eguaztenean, Iurretako Udalak eta Anderebide emakume elkarteak deituta. Joan zen zapatuan, bikotekidea jotzea leporatuta gazte bat atxilotu zuen Ertzaintzak Iurretan. Leku-koek Ertzaintzari deitu ostean, hauek bertaratu eta atxilotuta eramán zuten gaztea.

## Gure Esku Dagoren giza kateko insprizioa egingo dute Garain

**GARAI** • MARKEL ONAINDIA

Erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku Dago dinamika giza kate erraldoi bat sortzeko deia egin du ekainaren 10erako, orain lau urte bezala. Herritarrek parte hartzea beharrezkoa dute, eta, horregatik, Garain ere inskripziorako mahaia ipiniko dute gaur iluntzean. 20:00etan, *Gazta zati bat* dokumentala eskainiko dute Elizabarrin, eta ostean eman ahalko da izena.

## Zugarramurdi ezagutzeko egunpasa antolatu du Izurtzako jubilatuen elkarteak

**IZURTZA** • J.D.

Nafarroako Zugarramurdi herria eta inguruak ezagutzeko egunpasa antolatu du Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak, maiatzaren 27ko domekarako. Izen-ematea Izurtzako udal-etxean egin daiteke, maiatzaren 18ra bitartean. Elizondora heldu eta hamaiketako egin ostean, Zugarramurdiko koba bisitatu dute. Ostean, elkarregaz bazkalduko dute, Baztan Hotelean. Bazkalostean, bingoa eta dantzaldia izango dituzte.

# 2017ko aurrekontua likidatu ostean, 1.090.334 euroko soberakina izango du Abadiñoako Udalak

Apirileko udalbatzan 2017ko aurrekontuen likidazioa aurkeztu ostean, EH Bildu kexu agertu zen udalaren jarreragaz

**ABADIÑO** • A.M.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak (OHZ) zeresana ematen jarraitzen du Abadiñon. Apirileko osoko bilkuran, alkatetza dekretuen txandan, EH Bilduko Mikel Urrutiak salatzen zuten justifikaziorik gabeko igoera izan zela urte horretakoa. Izan ere, udalak duen 1.090.334 euroko soberakinaren ia erdia OHZ jasotzetik datorrela esan zuen. Bere garaian, herritarrek haserre agertu ziren igoeragaz. Udalak, ostean, neurriak hartu zituen baserriarrei zergak ordaintzeko laguntzak eskaintzeko, adibidez.

**“Herritarrek fiskalki ito”**

EH Bilduren berbetan, egon diren zerga igoerek ez dute justifikaziorik eduki. “Denborak arrazoia eman digu igoera horren helburua dirua biltzea baino ez zela esan genuenean”, adierazi zuen Urruti zinegotziak apirileko osoko bilkuran. “Gobernu taldearen estrategia herritarrek fiskalki ito, diru gerakinak gora egin eta hauteskunde

**Soberakinaren ia erdia OHZren bidez biltzea egotzi dio EH Bildu udal taldeari**



Baserri guneeetako herritarrek haserre agertu ziren igoeragaz bere garaian.

atarian kanpotik ikusten diren proiektuetan xahutzea da”, adierazi zuen Urrutiak. Lehenetsun zerrrenda bat egin, eta horren arabera inbertsioak egiteko eskatu zion udal taldeari oposizio taldeak.

Hain zuzen ere, berriki, Abadiñoako Udala adostasun batera iritsi da Bizkaiko Foru Aldundiagaz, Muntzarazko sarrerako obrarako dirua aurreratzeko; 1.200.000 euroko aurrekontua du obra horrek.

## Zaldibarko Udalak herrian hutsik dauden etxeen inbentarioa egingo du

Barrura ekimenak joan zen asteko udalbatzarrean alokairu sozialaren inguruan aurkeztutako mozioa onartu zuen Zaldibarko Udalak, EH Bilduren aldeko botoekin

**ZALDIBAR** • ARITZ MALDONADO

Gazteen alokairu sozialerako programarako babes politikoa lortu guran, Barrura ekimenak mozioa aurkeztu zuen joan zen asteko Zaldibarko udalbatzarrean. 18-32 urte arteko 100 gazteren atxikimendugaz (adin tarte horretako zaldi-

bartarren %40) eramán zuten gaia udalbatzan eztabaidatu zedin. EH Bilduren aldeko botoekin onartu zuten mozioa. Beraz, udalak Gazteentzako Alokairu Sozialerako Programa betetzeko konpromisoa hartu du. Gobernu Taldeak, gainera, etxebizitza hutsen inbentarioa

egingo duela aurreratu du. EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren, etxebizitzaren arazoa gazteena bakarrik ez dela argudiatuta. Era berean, jeltzaleek Zaldibarren etxebizitza berriak eraikitzea proposatu zuten. Barrura ekimeneko kideak ez datoz bat ideia horregaz. “Erroldaren arabera, 244 etxe huts dauden herrian etxebizitza berriak eraikitzea zentzugabekeria dela deritzogu”, diote Barrurako kideek.



## Txakurrak askatzeko hiru gune zehazten dituen ordenantza onartu du udalak

**ZALDIBAR** • ARITZ MALDONADO

Animaliak edukitzeari buruzko ordenantza aho batez onartu du udalak. Araudi berriagaz, herrian atondutako hiru guneeetan txakurrak solte ibili ahalko dira. Guztira, 1.000 metro koadro. Gaiak zeresana eman du, eta txakurren jabeek erabakiagaz ez daudela konforme azaldu dute. Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkateak, berriz, erabaki honeguz txakurren guneen gabeziari konponbidea eman diotela adierazi du.



Barrura ekimeneko gazteek hitza hartu zuten joan zen asteko udalbatzan.





# 2017KO ERRENTA AITORPENA EGIGUZU KONTSULTA KONPROMISORIK BARIK



FISKALA



KONTABILITATEKOA



MERKATARITZAKOA  
ETA FINANTZARIOA



LABORALA

*Bezeroa, enpresako bere kudeaketa  
eta bere gogobetetzea dira gure helburu*

[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO

Tel.: 946 818 636 / 946 811 590

Faxa.: 946 203 637

[info@gualbiasesores.com](mailto:info@gualbiasesores.com)

## 1936-1946 bitarteko Elorrioko memoria historikoa ikertzeko beka kaleratu dute

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Herriko memoria historikoa lantzeko eta ezagutzera emateko Elorrion sortu berri den Laumunarrieta elkarteak eta Elorrioko Udalak ikerketa beka kaleratu dute. Azterketa honen helburua 1936-1946 urteen tartean Elorrion izaniko gertaerak eta errepresio sozial, politiko, kultural zein ekonomikoa aztertzea da. Beka eskuratzeko interesdunek ekainaren 15era arte eman dezakete izena. Dokumentazio guztia Elorrioko Iturri Kultur Etxera bidali beharko dute, postaz edo eskuz, Laumunarrieta 1937 Elkartearen izenean.

Beka eskuratzen duenak 4.000 euro jasoko ditu, epe bitan ordainduko dena. Bekaren iraupena lau hilabetekoa izango da (luzagarria).

**Elorrioko gertaerak eta errepresio sozial, politiko, kultural zein ekonomikoa aztertzea da helburua**

Elorrioko bonbardaketak zein Intxortako frontearen zabalak herrian izan zuten eragina eta ondorioak aztertuko dituzte, besteak beste.

## XIX. Kaleko Pintura Lehiaketa antolatu dute Berrizen, zapatarako

BERRIZ • JONE GUENETXEA

Lanak aire librean egingo dira Berrizen, eta lehiaketaren egunean bertan margotzea da balditza nagusia. Lanak Berrizko Kultur Etxean, Geltoki kalean, aurkeztu beharko dituzte lehiaketako parte-hartzaileek,

**Berriz islatzen duten margoak Kultur Etxean egongo dira ikusgai, maiatzaren 5etik 27ra**

zapatuan bertan, 14:00etatik 14:30era. Irabazleak 600 euro eskuratuko ditu. Berriz islatzen duten margo horiek Kultur Etxean egongo dira ikusgai, maiatzaren 5etik 27ra bitartean.

# Bankia bankuak 202.776 euro itzuli beharko dizkie Barraskiko etxebizitzaren hiru kalteturi

Orain zortzi urtetik hona euren etxebizitzaren zain dauden hiru erosleri itzuli beharko die dirua bankuak



Barraski inguruaren irudia, Atxondon.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBIZKAR

2008. urtean, Norvisa enpresak hiru fasetan burutu beharreko bost eraikineko (52 etxebizitza) proiektu bat hasi zuen Atxondon, Barraski inguruan. 2010. urterako aurreikusten zuten proiektua amaituta izatea. Lehen fasean etxebizitza bloke bat egin zuten, baina ez zituzten etxebizitzok banatu, eta bigarren eta hirugarren fasean, berriz, egiturak baino ez zituzten altxatu. Proiektu honek hainbat

kaltetu eragin zituen, erosle askok planoaren gainean erosi zuten-eta etxebizitza.

Orain, zortzi urte geroago, epai batek jakitera eman duenez, Norvisa enpresak ez zuen aseguru egokia kontratatu, eta beraz, eran-

**Lehen fasean etxebizitza bloke bat egin zuten, baina ez zituzten etxebizitzok banatu**

**Bigarren eta hirugarren fasean, berriz, eraikinen egiturak baino ez zituzten altxatu**

tzule nagusiak, bankuak, 202.776 euro ordaindu beharko dizkio kaltetu bakoitzari.

Hala ere, sententzia hau ez da Norvisa enpresaren kaltetuetako batek irabazten duen lehenengoa. Iazko otsailean, Valentziako Lehen

Auzialdiko Epaitegiak beste kaltetu bati ere eman zion arrazoia. Auzitegi honek emandako epai baten arabera, bankuak 58.999 euro itzuli behar izan zizkion kaltetuari.

**Iazko otsailean, Valentziako epaitegiak beste kaltetu bati ere eman zion arrazoia**

# Emakumeak, pentsiodunak eta gazteak hartu ditu ardatz LAB sindikatuak Maiatzaren Lehenean

Eskualdez eskualde mobilizatu da, aurten, LAB sindikatua. Durangaldean, Zornotzan egin zuen ekitaldi nagusia

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Emakumeak, pentsiodunak eta gazteak hartu ditu ardatz LAB sindikatuak Maiatzaren Lehenean. Sindikatu abertzalea eskualdez eskualde mobilizatu da, aurten, "Lan, bizi, herri duina" lelopean. Duran-

**LAB sindikatuak "Lan, bizi, herri duina" lelopean egin ditu mobilizazioak Maiatzaren 1ean**

galdeko ekitaldi nagusia Zornotzan egin zuen. Kotxe karabana ere antolatu zuten Abadiño eta Ermuatik.


Prekarietatea jasaten duten kolektibo nagusiak direla iritzita hartu dute protagonismoa emakume, gazte eta pentsiodunek. Hartara,

emakume langileek emakume iza-teagatik jasandako "egiturazko indarkeria" gogoratu zuten, egun hori emakume langileen borroka eguna ere badela nabarmenduz.

LABen ustez, "enplegu duina behar da bizi duina eta pentsio duina bermatzeko" eta "garai berri bati aurre egiteko prest" dago. Politikan eragin gura du sindikatuak eta "borrokaren giltza" pentsiodunek, emakumeek, gazteek... dutela dio. Erronka bikoitza du LABek aurten: "Eraldaketa sozialerako grina gauzatuko duen mobilizazio soziala indartzea eta aldaketa hori burujabetza prozesuagaz lotzea". Gaineratu dutenez, lan istripuak, laneko gaixotasunak eta prebentzio falta salatzen jarraituko dute, "langileen osasuna eta bizi erdigunean jartzeko ordua heldu delako".



LABek Zornotzan deitutako manifestazioaren irudi bat.



Eraz

## Hareek denporak!

# Mery elefantearen eta idi parearen arteko desafioa

Eduardo Urzelai berriztarrak Mery elefantearen eta Benigno Azpitarte Antzuaren idi parearen arteko desafioa antolatu zuen 1963ko ekainaren 2an, Berrizko probalekuan.

Bilboko Casillan zegoen Circo Milaneko elefantea zen Mery. 55 urteko animalia zen, "munduko elefanterik handiena", La Gaceta del Norte irakur zitekeenez. Urzelai Bilbora joan zen eta zirkuko jabeari desafioa

bota zion. "Proba egitearren 25.000 pezeta ordainduko nizkiola eta sarreretan ateratzen zen dirua, gastu guztiak ordaindutakoan, nik zuzentzen nuen elkarterako izango zela esanez konbentzitu nuen", azaldu zuen Urzelai ERAZen egindako elkarrizketan. Antzuaren idiek erraz irabazi zioten elefanteari. Entzute handiko desafioa izan zen, NODOa ere bertan izan zen ekitaldia grabatzen. J.G.

## Sei hankako mahaia

Pilar Rios Ramos  
PSE-EE



### Bortxaketa da!

Joan den martxoaren 8an, milioika emakume atera ginen kaleetara, genero-desparekotasuna salatzen. Inflexio-puntua izan zen, berdintasuna lortzeko egiten ari garen borrokan. Matxismoaren kontrako aldarri ozen horren ondoren, nekeza zen irudikatzea botere judicialak entzungor egingo ziela oihu horiei, eta sekula irakurri dugun epairik okerrenetako bat emango zuenik. Epaiak ez du bortxaketa aipatzen, eufemismoak erabiltzen ditu, eta onartu gabeko sexua hutsaltzen du.

Zutabe honetako 1.500 karaktereak ez dira aski Otso-saldoaren epaiak eragin dizkigun amorrua, sumindura, haserrea, babesgabatasuna, kezka... ezintasuna jasotzeko.

Biktimak salaketa jarri zuen lehenengo egunetik, epailek epaitu egin zuten. Adituek proba psikologikoak egin zituzten, haren adierazpenaren egiazkotasuna zehazteko. Defentsaren jazarpena jasan zuen, zalantzan jarri nahi baitzituzten haren ohiturak. Zentzugabekeria hutsa. Bortxatzaileek, berriz, ez zuten horrelakorik jaso.

Kasu honetan oso gaizki jokatu da, eta premiazko bi betebeharrak ditugu aurrean. Lehenik, Zigor Kodeak behar bezala jaso behar du sinatu dugun Istanbulgo Hitzar-menak zehazten duena, hau da, onartu gabeko sexua bortxaketa dela, tartean indarkeria egon zein ez egon. Bigarrenik, epailek beren burua egokitu behar dutela, eta genero-ikuspegia eta biktimarekiko enpatia hartu behar dituztela aintzat legea interpretatzerakoan.

Nire ustez, epai hau eman ondoren, Otso-saldoaren epailek eta Botere Judicialaren Kontseilu Nagusia konplizeak izango dira hurrengo eraso matxistak, abusuak edo bortxaketak direnean, eta epaitu beharko lituzkete horregatik.

Ez da abusua, bortxaketa da!

## Durungaldea asteen

### Protestekin aurrera jarraituko dutela adierazi dute pentsiodunek

**Durungaldea** | EAJk eta PPK pentsioak igotzeko lortutako akordioaren ostean, pentsiodunak berriro atera ziren kalera astelehenean, azkenaldian astero egin duten bezala. Euren ustez, akordio horrek ez du "sakoneko arazoa" konpontzen, eta, horregatik, mobilizazioekin segitzeko beharra ikusten dute. Horrela, euskal pentsiodunek biharko eta maiatzaren 26rako Bilbon deituriko manifestazioetara joateko dei egin dute.

### Elorrioko Udalak Goiener kooperatibaren bidez jasoko du energia aurrerantzean

**Elorrio** | Udalak energia berdea soilik erosiko du. Izan ere, Goiener energia berriztagarrien kooperatiba izan da prozedura zabal bitartez lizitatu den kontratu berriaren irabazlea. "Udal talde honek sendo egiten du energia berriztagarrien alde; horregatik, baldintza izan da kontsumitzen dugun energiaren %100 berriztagarria izatea", adierazi du Xabier Dominguez zinegotziak.

### Zornotzan 180.000 euro erabiliko dituzte udaltzaingoaren bulegoak berritzeko

**ZORNOTZA** • J.D.

Udalak 2017ko aurrekontu ekonomikoa likidatu du, eta horren gaineko datuak eman zituzten azken udalbatzarrean. Gastu orokorretarako, 3.966.162,60 euro geratu zaizkie. Udalbatzarrean jakinarazi zuten, soberakinetik hartutako 180.692 euro udaltzaingoaren bulegoak birmoldatzeko erabiliko dituzte. Horrela, lanak aurtun hasi ahal izango dituzte.



### Milaka lagun kalera irten dira Durungaldean Iruñeko sententziaren aurka protesta egiteko

**DURANGALDEA** | 2016ko sanferminetan emakume bati taldean egindako erasoari buruzko epaia publiko egin zuten joan zen egunean. Akusatuak sexu abusu delituagatik zigortu ditu auzitegiak, eta ez sexu erasoagatik. Erabaki horrek hainbat herritarren haserrea eragin du. Sententzia publiko egin zuten egunean bertan, hainbat protesta ekitaldi burutu zituzten Durungaldean. Plataforma Feministak deituta, ehunka lagun manifestazioan bildu ziren Durangon. Zaldibarren, Zornotzan eta Elorrioren ere elkarretaratzeko egin zituzten. Kurutzia ikastolako eta Durangoko Institutuko ikasleek ere kontzentrazioak egin zituzten epaitegien erabakia gaitzesteko.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

# TABIRA

Eguneko zentroa eta Egoitza gerentzia berria

Intxaurrondo, 27 DURANGO  
944 668 852 / 690 622 499

## Hartu atsedenditxo bat

[www.cuidamosdetusmayores.com](http://www.cuidamosdetusmayores.com)

- Zaintza eta zerbitzua adindunei •
- Prebentzio Sanitario, Psikologiko eta Fisioterapeutiko handia •
- Ile-apainketa eta podologia zerbitzua •
- Aisialdia eta eguneko ibilaldiak •
- Terapia okupazionala •
- Aldi baterako egonaldiak •
- Herriguneko instalazioak ongi komunikatuta •
- Zaintzailearen atsedena •
- Lan talde bikaina •

# AUTOEN GEHIGARRIA 2018



# "Umeak dituzten gazteak dira furgonetan ohiko erabiltzaile, baina badaude jubilatzerakoan erosten dutenak ere"

Oporrak norberaren erritmora disfrutatzeko aukera eskaintzen dute furgonetek eta autokarabanekek

## BIDAIAK • JONE GUENETXEA

Asteburu zein opor pasa joateko, etxea aldean eramatea aukeratzen dute askok. Izan ere, gorakada izan du furgonetan eta autokarabaneen erabilerak bidaiari joateko. Espazio txiki batean lo egiteko lekua, sukaldia, komuna eta biltegia batzuek erraztasun handiak ematen ditu bidaiatzerako orduan.

Alluitz motor kontzesionarioak Volkswagen California furgoneta komertzializatzen du. Modelo bi dituzte: California Beach eta Ocean. Azken honek ur depositua, harrikoa egiteko lekua eta beste hainbat zerbitzu ditu. Beach modeloak, aldiz, ohea baino ez darama, atzeko aldean. Furgoneta hauen sabaia jaso egiten da, eta han bi pertsonentzako ohea at-

ratzen da. Beraz, lau pertsonak eroso lo egiteko aukera eskaintzen du, bik behean eta beste biek goian.

## Modan dauden oporrak

Furgonetan munduak garapen handia izan du azken urteotan, naturaz eta aire librean gozatzeko aukera ematen du eta. Turismoa egiteko modu honek hainbat aukera eskaintzen dizkio bidaiariari. Alluitz motorreko Xabier Arroitauregik dioenez, orain urte batzuk jendeak Transporter furgoneta erosi eta euren kabuz prestatzen zuten atzeko aldea. Horren aurrean, markak California Beach oinarritzko modelo atera zuen, osagarri guztiak dituen baina askoz merkeagoa.

Geroago eta herri gehiagotan autokarabaneentzako guneak sortzen ari dira; Durangaldean, Elorrión

Furgonetan erabiltzaileak familiak zein helduen bikoteak direla dio Arroitauregik. "Umeak dituzten gazteak ohiko erabiltzaile dira. Badaude helduagoak ere, jubilatzerakoan furgoneta erosten dutenak". Aisialdirako denbora dutenak dira furgonetan gehien bidaiatzen dutenak, ez bakarrik abuztuan edo udan, urte osoan baizik. "Suhiltzaileak eta irakasleak diren bezeroak ditugu, eta opor luzeak izanda, furgonetari probetxua ateratzen diote", gaineratu du. Beraz, edozein asteburu, zubi edo opor egun aitzakia ezin hobekak dira bidaiatzeko modu honetaz disfrutatzeko.

## Kotxearen ordezkari

Autokarabaneak ere boladan dauden arren, furgonetak beste abantaila bat duela azpimarratu du Arroitauregik. "Egunerokotasunean autoaren ordezkari erabili daiteke". Gainera, oporretan irtetzerakoan, erosoagoa izan daiteke hirietan zein herrietan zehar mugitzeko.

Hala ere, geroago eta herri gehiagotan autokarabaneentzako guneak sortzen ari dira, bidaiatzeko modu hau gorantz doan seinale. Durangaldean, esate baterako, Elorrión sortu dute autokarabaneentzako gune bakarra. Turismo mota hau erakartzeko bidea izan daiteke.



ALLUITZ MOTOR, S.L.

Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia

Tel.: 946 202 004 Faxe: 946 200 998

alluitz@otola.org · www.alluitzmotor.com

DISFRUTATZEKO TEKNOLOGIA





**Eneko Goiriena**  
Gorrotxategi  
Auto lasterketako  
pilotua  
Izurtza | 1991

**Alain Peña Salvador**  
Auto lasterketako  
kopilotua  
Durango | 1996

## “Irabaztea baino, ahalik eta proba gehienetan parte hartzea eta gozatzea dugu helburu”

Denboraldi honetarako auto berria prestatzen dabilta Eneko Goiriena auto lasterketako pilotu izurtzarra eta Alain Peña kopilotu durangarra. Mekanika aldetik aurrekoa baino apalagoa izango da

### AUTO LASTERKETAK • JOSEBA DERTEANO

Euskadiko Rallysprint Txapelketa hasita dago, baina Eneko Goirienak eta Alain Peñak ez dute parte hartu orain arteko hiru lasterketetan. Auto berria prestatzen dabilta. Potenteagoa den bat? Ez, ezaugarri aldetik xumeagoa izango da. Goirienak goian ibiltzeak dakarren zama kendu gura du, eta horregatik hartu du erabakia.

**Eneko Goiriena:**  
“Bizkaiko Behatokiko lasterketan, neure buruari sartu nion presioaren ondorioz txarto pasatu nuen”

### Aurtengoa bigarren hasiera bat izango da?

**Eneko Goiriena:** Lasterketei aurre egiteko modua erabat aldatuko dut, behinik behin. Hasi ginenean, lasterketetan aritzea zen gure ilusioa. Gero, normalean, gero eta auto potenteagoak gura dituzu, sailkapenean gorago geratzeko. Hori lortuta, iaz Bizkaiko Behatokiko rallysprinta irabazi genuen, esaterako. Baina, orain, hasi nintzenetik urte batzuk joan direnean, konturatu naiz irabazteak ez didala poztasun

itzel hori eman. Hau da, auto benetan indartsu bat errepidera ateratzeak lan eta ahalegin handia eskatzen du, hainbat arlotan gainera: mantentze-lanetan eskatzen duen diru kopuruan, autoa puntuan egoteko eskatzen duen lanean zein denboran... Eta garaipenak ez dit berau lortzeko eskatzen didan sakrifizio guztia konpentsatzen.

**Beraz, iaz Bizkaiko Behatokian lortutako garaipena ez zenuen espero moduan gozatu.**

**E.G.:** Ez. Gainera, etxeko lasterketa zen, lagunak eta senideak bertan... Goizeko tarteetan ostean lehenengo geunden, eta arratsaldean apurka denbora jaten hasi zitzaizkigun. Derrigorrez irabazi behar genuela tematu nintzen, eta neure buruari sartu nion presio horren ondorioz txarto pasatu nuen. Lasterketa irabazi ostean, poztasuna barik lasaitasuna sentitu nuen. Beste pilotu batzuekin berba eginda, presio hori normala dela konturatu naiz, denek sentitzen dutela. Baina nik ez dut gura. Ez dugu ahaztu behar gauza bat: amateurrek gara eta astelehenean lantokira joan behar dugula denok. Nahiago dut askoz gastu gutxiago eragingo didan auto bat prestatu eta 20. amaitu. Eta, batez ere, gastu berdina eginda, lasterketa gehiagotan parte hartu gura dut. Berdin dit

**Talleres**  
**Serafín S.Coop**

Elorriagazar, 11  
Tel.: 94 681 48 07  
48220 MATIENA-ABADIÑO



**AMAYA**  
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)  
48215 IURRETA / Bizkaia  
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxe: 946 203 818  
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com  
[www.amayaautoreparaciones.com](http://www.amayaautoreparaciones.com)

**MOTOS TABIRA**

KONTZESIONARIO OFIZIALA  
Salmenta · Konponketa · Boutiquea

DOAKO ASEGURUA  
ITZULI DA KEEWAY  
125CC GUZTIETARAKO

Tel./Faxe: 94 681 40 68  
motostabira@outlook.es

[www.motostabira.es](http://www.motostabira.es)

Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO





Aurten arte bere modeloko onena zen BMW M3 bategaz aritu dira.



Irudietan, laster prest izatea espero duten auto berriaren egitura.

zein modalitatetan, baina lasterketak lehiatuz gozatu gura dut, eta ez bakarrik irabazi.

**Zelan doa auto berriaren muntaia?**

**E.G.:** Orain arte BMW M3 bat izan dugu, bere modeloko potenteena. Orain muntatzen gabiltzanak karrozeria berdina izango du, baina motorra beste modelo batekoa da. Mekanika aldetik aurrekoa baino apalagoa da eta, ondorioz, merkeagoa.

**Autoa prest dagoenean ahalik eta lasterketarik gehienetan parte hartzen saiatuko zarete?**

**E.G.:** Rallysprintetan, igoeretan zein rallyetan. Hiru retatik rallyak dira gutxien gustatzen zaizkidanak, prestaketa handia eskatzen dutelako. Ez dut egun oso bat galdu gura tartea egiten eta notak hartzen. Ahalik eta sakrifizioz txikiengaz ahalik eta gehien gozatea, horixe da orain bilatzen dudana.

**Alain, oraintsu Espainiako Rally Txapelketako lasterketa batean kopilotu aritu zara. Zelan sortu zaizu horretarako aukera?**

**Alain Peña:** Haritz Badiola pilotuak Suzuki Kopan beragaz aritzea eskaini zidan eta onartu egin nuen. Joan zen asteburuan, berriz, Euskadiko Rally Txapelketan ibili nintzen, Roland Holkeregaz.

**Espainiako txapelketa beste mundu bat da?**

**A.P.:** Bai, pilotuentzat zein kopilotuentzat. Etxeko lanak ondo egin eta dena xehetasun guztiekin prestatu behar duzu. Bertara joan eta egun bitan entrenamenduak. Gauerdian etxera heldu eta notak errepasatzen, garbira pasatzen... Lan handia izaten da.

**Noiztik ezagutzen duzue elkar?**

**A.P.:** Lau urtetik hona.

**E.G.:** Beste kopilotu eta pilotu batzuekin genbiltzan. Biok tirabirak izan genituen eurekin eta kopilotu eta pilotu barik geratu ginen. Ingurukoak ginenez, elkartzera erabaki genuen.

**Pozik zabilzate elkarrengaz?**

**E.G.:** Bai. Hasieran apur bat kosta egin zitzaidan nire konfiantza osoa eskaintzea. Apur bat mesfidatia naiz kopilotuekin. Izan ere, oso garrantzitsua da bat egitea. Baina lasterketak elkarrengaz egin ahala konfiantza hori sendotu dugu eta, orain, ez nuke beste inorenengatik aldatuko.

**A.P.:** Ni ere oso pozik nago beragaz. Egia da handik eta hemendik deitzen didatela eta pilotu bategaz baino gehiagorik aritzen naizela, baina Eneko gaz beti oso ondo.

**Zuen lehenengo garaipena 2016an izan zen, Zamudioko rallysprintean. Zelan gogoratzen duzu lasterketa hura? Faboritoen artean zeundeten?**

**A.P.:** Ez ginen faboritoak, inondik inora. Hasieran, parte hartzeko asmorik ere ez geneukan. Azken orduko erabakia izan zen, erdi brometan hartu genuena. Izan ere, autoaren soberakinak baino ez geneuzkan: gastatutako erruberak... Goizean lehoreko gurpil denak erabili genituen eta aurrean ibili ginen, baina arratsalderako euritakoak bakarrik geratzen zitzaizkigun. Zorionez, euria egin zuen. Egin izan ez balu, ez genuen irabaziko.

**E.G.:** Ezusteko garaipena izan zen, eta oso pozgarria.

**Alain, alboan barik, joan zara inoiz bolantean?**

**A.P.:** Ez, kopilotua izan naiz beti. Etorkizunean, beharbada, lasterketaren batean eta proba egitearren... Baina, momentuz, ez dut kuriositate hori.

**Eneko, pilotua izateko afizioa umetatik datorkizu?**

**E.G.:** Aitak rallyetara eramaten ninduen umetan. Gero, Tarsi [Iban Tarsicio pilotua] ezagutu nuenean, berak erakutsi zidan mundu hau. Esaterako, Hirumet, nire babesle handiena, berari esker lortu nuen.

**Aurten ez dabil errepedean.**

**E.G.:** Ez, aita izan da eta utzi egin du. Uste dut buelta-

tuko dela. Beharbada, ez aurrean ibiltzeko desio horregaz, nire antzera baizik, lasterketekin gozatzeko helburuagaz. Ikusiko dugu.

**Errepidean dabilena Enrike Barrenetxea-Arando zaldibartarra da eta rallysprintetan orain arte lehiatutako hiru lasterketetatik bi irabazi ditu. Bera da iazko txapeladuna ere. Aurten txapelketa irabazteko faborito ikusten duzue?**

**E.G.:** Bai. Erretirotik indartsu eta egurra ematen bueltatu zen. Horretarako, ona eta arina izan beharra dago. Bestela, urtebete edo gehiago behar izaten da erritmoa erabat hartzeko.

**Beteranoak modan daude. Lebeiti ere, bere auto mitikoa saldu duen arren, estatuan beste inork ez duen berri bategaz dabil.**

**E.G.:** Behin Lebeiti elkarrizketatu nuen! Umetan, zortzi bat urtegar, eskolako lan baterako izan zen. Euskal Herrian Lebeitiren kotxea mitikoa izan da eta niri kotxe barruan esertzen utzi zidan. Imaginatu, flipatu egin nuen!

**Eneko Goiriena:**  
"Umetan, eskolako lan baterako, Lebeiti elkarrizketatu nuen eta bere kotxe mitikora igotzen utzi zidan. Flipatu egin nuen!"



## DESGUACES PILASTRA

- CAT Nº EU2/097/04
- Compra de vehículos para desguace
- Venta de Recambios Usados
- Servicio de grúa

☎ ADMINISTRACIÓN, BAJAS Y FAX: 946 218 079  
☎ VENTA RECAMBIOS: 946 201 787  
e-mail: desguacespilastra@gmail.com  
📍 Bº Fauste, 18 - 48215 IURRETA (Carretera Zugastieta)

**GASOLINDEGIA**



**HIPER SIMPLY**

**DURANGO**  
Montorreta industrialdea, 1 ST3 errepidea.  
Pol. Montorreta, 1 ST3 Ctra.

Eskualdeko preziorik lehiakorrena  
Gaueko ordutegian 22:00etatik 7:00etara eta jai-egunetan egun osoz

**2<sup>Ct</sup> MERKEAGOA**

**BONU-TXARTELA OPARI 3€\***  
supermerkatuko erosketetarako

\*35€ baino gehiago hornituz gero. Kontsultatu baldintzak zerbitzugunean.



**"Auto hibridoak erabiltzea gozamina da; etorkizunean, auto ekologikoak baino ezingo dira ibili hirietan"**

**"Sevillako taxi guztiak Toyota Prius markakoak dira, eta lau litroko kontsumoa dute. Beraiekin berba eginez gero, oso pozik daudela diote"**

**INGURUMENA • ARITZ MALDONADO**

Koinatuak hala gomendatuta, Eñaut Balier Ugartek (Durango, 1973) auto hibridoa erosi zuen. Auto hauen ohiko erabiltzaileen adierazgarririk onena izan ez arren, erabakiagaz oso gustura dagoela airtortzen du durangarrak.

**Noiz erosi zenuen auto hibridoa?**

Orain zazpi urte, eta orduetik hona ez dut arazorik izan.

**Zerk bultzatu zintuen auto hibridoa erostera?**

Auto-etxe hobeak sartu zirela merkatuan irakurri nuen. Kontsumoa gutxiagotzen laguntzen zutela irakurri nuen, eta horrek bultzatu ninduen, batez ere. Egia esateko, auto hibridoak gozamina dira

**Garaje miguel**

**GARBIKETA · TAPIZERIAK  
MEKANIKA · GURPILAK**

Arzubia, 10A - 1 Pabiloia  
Matiena - Abadiño  
Tel.: 94 681 91 61  
www.garajemiguel.es

**Garage SAN MIGUEL**

**ESPEZIALISTAK DIESEL  
ETA GASOLINA MOTOREAK  
KONPONTZEN**

Dantzari auzunea, 8  
**IURRETA**  
Te./Fax: 946 811 479  
garagesanmiguel@gmail.com  
www.garajesanmiguel.es

Certified**First**  
**AUTOGAIN  
TALLERES**

**TXAPA ETA PINTURA**

San Agustin industrialdea  
2. mod. 17. nabea  
**ELORRIO**  
Tel. - Faxes: 946 056 732  
Mug.: 679 174 367  
autogain@hotmail.es

**GnG ELORRIO**

**KONFIANTZAZKO TAILERRAK**

**GnG ELORRIO**

**POL. SAN AGUSTÍN 1 - ELORRIO**  
TLF. 637 720 071





hirian ibiltzeko. Ez dute zaratarik ateratzen, eta automatikoak dira, gainera. Batez ere, zaratarik ez ateratzea dut gogoko.

#### Gustura, beraz?

Gasoildun autoek kontsumo maila jaitea lortu dute, baina oraindik ere motorraren zarata hor dago. Niri, egia esan, koinatuak proposatu zidan auto hibrido bat probatzea, hau [bere autoagatik] irten zenean. Bidaia nahikotxo egiten ditut autobidean, eta, beraz, ez naiz auto hibridoaren adierazgarririk onena. Hala ere, adibidez, Sevillan (Espainia) hango taxi gidariei galdetuz gero, oso pozik daudela esango dizute. Han taxi guztiak Toyota Prius dira, eta lau litroko gasolina kontsumoa dute. Interesgarria iruditu zitzaidan. Gainera, auto hibrido batek ate-

**“Autobidean asko bidaiatzen duen auto komertzial batek 5-6 litroko kontsumoa lor dezake dieselagaz eta hori zaila da auto hibrido bategaz lortzea”**

ratzen duen zaratak ez du zerikusirik ohiko autoek ateratzen dutenagaz. Beste alde batetik, hibridoek ez dute abiadura-kaxarik, eta, hortaz, egin behar duzun gauza bakarra azeleratzea eta balaztatzea da. Auto automatiko normal batean, azeleratzean igarri egiten da martxa aldaketa. Honelakoetan, ostera, ez. Niretzat jauzi bat izan zen auto automatikora igarotzea eta gama handiagoko auto batera salto egitea, eta oso pozik nago aldaketagaz.

#### Laguntzarik jaso duzu auto hibridoa erostearren?

Erakundeen aldetik laguntza batzuk jasotzen dira. Sustatzeko modu egokia da hau. Auto hibrido bat erosiz gero, ez da matrikulazio zerga ordaintzen. Horregaz batera, ‘auto ekologikoa’ dioen pegatina jasotzen duzu autoan jartzeko. Madril, Bartzelona eta hiri handietan sarrera mugatua delakoa ezartzen denean, pegatina hori dugunok ez dugu arazorik izango. Egongo dira desabantailak, baina ni oso pozik nago. Hirietan auto ekologikoak baino ezingo direla ibili aurreikusten da etorkizunera begira.

#### Distantzia luzeetarako arazorik ematen dute?

Batere arazorik ez. Beharbada, ez duzu gasolina kontsumo txiki bat izango. Normala den moduan, distantzia luzeetan gasolina kontsumoa igo egingo da; adibidez, autobidean joatean; Hala ere, ohiko autoekin ere berdina gertatzen da. Nire kasuan, 4x4 bat daukat, gurpil handikoa, eta autobidean noanean, 8-9 litroko kontsumoa dut. Ez da 15 litroko kontsumoa, eta gaitzerdi! Baina ez da kontsumo txiki bat. 120 kilometro orduko abiaduran joanez gero, nahiko kontsumitzen da, bai, baina 50 zaldiko motor elektrikoak lagundu egiten du kontsumo hori jaisten. Laguntza hori autoaren aginteetan ere ikusten da; bertan adierazten da motorraren indarra nola bideratzen den.

#### Uste duzu aldaketa errotik emango dela? Auto hibridoek gainontzekoak ordezkatzeko dituztela?

Nik ez dut aldaketa hori ikusten. Auto komertzial batek, adibidez, bidaia luzeetan 5-6 litro bitarteko kontsumoak lor ditzake dieselagaz, eta auto hibrido bategaz hori lortzea oso zaila da. Motorrak gasolinazkoak dira, eta hor dago lehenbiziko gakoak. Astiro, baina joango dira gauzak aldatzen: motor elektrikoak handitu ahala, gasolinazko motorrak txikituko dituzte. Eta hori ona izango da, hibridoak gasolinazkoak baino potenteagoak izatera iritsi ahalko direlako.

#### Zure esperientzia kontuan hartuta, auto hibridoa erostea gomendatzen duzu?

Ni pozik nago eta jendea animatuko nuke. Gero eta etxe gehiagok eskaintzen dituzte, gainera, eta horrek laguntzen du, bai kalitate aldetik, bai prezio aldetik. Auto elektrikoak nahiko mugatuta daude, bateriak kargatu behar direlako eta hori oztopo bat da gaur egun; ezin daitezke edozein lekutan kargatu, eta bidaia luze batean, beharbada, gaua bidean igaro beharko duzu, kargatu bitartean. Hibrido bategaz, ostera, edonora joan zaitezke arazo barik. Etorkizunean, ia etxe guztiek ibilgailu hibridoak eskainiko dituzte; horretarako ari dira lanean.

## Autoen etorkizuna, automatizazioa eta elektrifikazioa

lazko urtarrila eta urria artean saldutako autoen %5 hibridoak edo elektrikoak ziren

Jakina da euskal industriagintzako sektorerik garrantzitsuenetako bat automobilgintza dela. Industriak etorkizunera begira duen erronka nagusietako bat, hain zuzen ere, automatizazioa eta elektrifikazioa dira; hau da, autogintzan motor elektrikoak, bateriak eta softwarea gakoak izan dira. Auto elektrikorako aldaketa martxan dago, hasiera batean adituek uste baino astiroago joan arren. Horrela, 2025. urterako munduan egongo den auto elektrikoen kopurua bost bider handiago izango dela diote adituek. Horrez gainera, Faconauto automobilen kontzesionario elkartearen arabera, bost urteren buruan autoen laurdenak sarera konektaturik egongo dira.

Faconautoaren arabera, 2017ko urtarrila eta urria bitartean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 1.647 auto hibrido eta 109 auto elektriko saldu ziren. Saldutako auto guztien %5 baino ez izan arren, hazkundera nabarmena da. Izan ere, auto hibridoaren kasuan, %68ko hazkundera izan dute salmentek; are nabarmenagoa da igoera hau auto elektrikoaren kasuan, %541koa, hain zuzen. 2021 amaieran, 24 milioi auto egongo dira estatu espainiarrean, eta horietako laurdenak, hau da, 6 milioi auto, sarera konektaturik egongo dira.

Automobilgintza hazten dabilen sektorea izan arren, aldaketa teknologikoen merkaturatzea baldintzatu dezaketela uste dute adituek. Iaz sortu ziren 93 milioi autoetatik 22 milioi baino ez ziren Europan egin. Auto elektrikoak begiratuz gero, autorik gehien saldu dituzten etxeen artean ez dago europar bakar bat ere. Tesla (AEB), Baic (Txina), Nissan (Japonia), ZD (Txina) eta ByD (Txina) dira autogilerik arrakastatsuenak. Renault izan da auto elektrikorik gehien saldu duen etxe europarra. Sailkapenean ikusi daitezkeen bezala, asiarrek agintzen dute merkaturatzea (iaz 49 milioi auto egin zituzten Asiako fabriketan).

Onuren jakitun, erakundeek mota hauetako autoen salmentak sustatzeko neurriak hartu dituzte. Horrela, adibidez, Eusko Jaurlaritzak laguntza ekonomikoa eskaini zuen 2017an, Energiaren Euskal Erakundearen bidez. Ibilgailu elektrikoak zein hauek kargatzeko puntuak sortzeko laguntzak ziren. Halaber, EGEF Eskualdeak Garatzeko Europa Funtsak 20 milioi euroko aurrekontua bideratu zuen hau sustatzeko.

**neumáticos**  
**ETXEBARRIA**

Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak) - Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO  
(Hiper Eroskiren ondoan)  
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622  
[www.neumaticosetxebarría.com](http://www.neumaticosetxebarría.com)



# "Bezero askok etxe ofizialera ekartzen dute kotxea, ordezeko pieza ofizialak eta eskulan kualifikatua gura dituztelako"

Oporretan bidaiari irten aurretik autoaren mantenua egoki egitea gomendatzen dute adituek



Julen Bilbao Gaursako tailerlean.



Gaurako tailerraren irudia.

**AUTOA** • JONE GUENETXEA

Uda sasoa gerturaten ari den honetan, oporretan nora joan izaten da zalantza. Aukeratutako leku horretara joateko, askok eta askok autoa erabiliko dute. Bidean sortu daitezkeen ezusteko desatseginak saihesteko, Julen Bilbao Nissan Gaursako mekanikariak hainbat gomendio nabarmendu ditu.

**Udara begira, bidaiari luzea egin aurretik zer gomendio emango zenuke?**

Norberak egin dezakeena garrantzitsua da. Mailak begiratzea, esate baterako. Olioarena, izotzaren aurkako produktuarena, balazten likidoarena... Ura bota behar da haizetakoetarako, bidean aurki daitezkeen moskitoak edo zikinak kentzeko. Gurpilen presioa ere begiratu behar da. Pneumatikoa berotu egiten da ibili ahala eta presioak gora egiten du. Garrantzitsua da presio gutxiegi edo gehiegi ez izatea. Argiak ere begiratzea komeni da.

**Tailerretik ere pasatzen da jendea?**

Bai, azterketa egin daiteke; mekanika aldetik sakonagoa, gainera.

**Kotxea egoki mantentzeko, zer egin behar dugu?**

Aholkua izaten da fabrikatzailearen aginduei jarraitzea. Gure kasuan, Nissanen errebisioa urtebetera edo 30.000 kilometrorra egitea gomendatzen dugu.

**Jendeak behar bezala zaintzen du autoa ala arazoren bat duenean gogoratzen da tailerrera joateaz?**

Denetarik dago, baina, orokorrean, jendeak ondo darama autoaren mantenua. Kotxeak hamar urte edo gehiago dituenen bezero askok etxe ofizialera ekartzen jarraitzen dute, ordezeko pieza ofizialak eta eskulan kualifikatua gura dituztelako. Horrela, kotxe horren bizitza luzatu gura dute.

**Gurpilen mantenua berezia izaten da?**

Normalean, 5 urtera zahartzen dira. Gurpilean bertan fabrikazio urtea jartzen du.

**Urtean zehar zein gurgil mota aholkatzen duzue?**

Onena neguan negukoak eta beste hileetan udakoak jartzea da. Maiatzetik urrira arte jartzen dira udakoak. Batez ere Gasteizera lanera doazenen jartzen dituzte negukoak. Kostaldean ibiltzen direnentzat, berriz, ez du merezi. Hala ere, jende guztiak ez du zortzi gurgil edukitzeko ahalmena. Baina badaude batzuk urtaro guztietan erabili daitezkeenak.

**Markako tailer bateko zerbitzu teknikoak 'plus' bat eskaintzen dio bezeroari?**

Ipiniko zaizkion ordezeko piezak ofizialak eta originalak izango direla bermatzen dugu. Beste tailer batera joanda, izan liteke ordezeko piezak hemen erostea edo ordezeko pirata izatea. Bestalde, Nissanen, esate baterako, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dizkiogu bezeroari. Doako ordezeko autoa eta bezeroaren garraioa, besteak beste.

**Kotxeak geroago eta teknologikoagoak dira. Matxura bat konpontzeko, ia informatikaria behar da.**

Guk ekipo teknologikoak ditugu konponketak egiteko, eta tresna hauek gure markarako bakarrik balio dute. Matxura hori konpontzeko sakonago heldu gaitezke.

"Ekipo teknologikoak ditugu konponketak egiteko, eta tresna hauek gure markarako bakarrik balio dute"

**ARRIBIDE**  
.. GASOLINDEGIA ..

Arriaundi Industrialdea P1  
48215 IURRETA Bizkaia  
Tel. 946 818 381  
estacionservicio@arribide.com



www.arribide.com

**Seguros Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
**Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577  
jrueda@segurosbilbao.com



# Dacia Duster berria



Dacia Duster berria gama: Kontsumo mistoa (l/100km) 4,4 eta 8,8 bitartean. CO<sub>2</sub>-ren isuria (g/km) 115 eta 156 bitartean.

Dacia-ren gomendioa elf

Dacia España

Dacia ESP

[www.dacia.es](http://www.dacia.es)

## GAURSA

Arriandi Auzoa, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA

Kale Nagusia, 65. Tel. 94 441 74 50. BILBO

Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. DEUSTU

Txorierri Etorbidea, 6. Tel. 94 453 04 79. LOIU

[www.gaursa.com](http://www.gaursa.com)

## Izaro

KONTZERTUA  
BERRIZ :: Maiatzak 5

### 'Eason' diskoa aurkeztuko du Izarok, bira luzearen barruan

Eason izeneko diskoa otsailan kaleratu eta gero, Izaro Andres musikari mallabitarra plazarik plaza ibiliko da datozen asteetan. Maiatza eta ekaina bitartean, esaterako, 11 kontzertu ditu iragarrita. Horietako bat bihar izango da, Berrizko Kultur Etxean, 20:00etan. Kontzer-

turako sarrera guztiak saldu dira.

Diskoa aurkezteko birako hitzordurik gehienak Euskal Herrian ditu mallabitarrek, baina kanpoan ere ibiliko da tarteka. Maiatzaren 18an, adibidez, Madrilén joko du, Radio3 irrati kateak eskainiko duen jaialdian.



## Literaturaz gozatzeko irakurketa maratoia

**LITERATURA** | Euskal literatura maite dutenek galdu ezinezko zita dute gaur Plateruena kafe antzokian, Hitzez eta Ahotsez ekimenaren baitako irakurraldi kolektiboan. Zazpi orduko irakurketa maratoia izango da, 17:00etatik

24:00etara bitartekoa. Aurtengo edizioan, Lurra izango da gaia; gai horri loturiko euskarazko testuak irakurriko dituzte parte-hartzaileek, idazleek argitaratutakoak zein eurek sorturikoak. Horrela, irakurle, sortzaile, idaz-

le, dantzari, musikari, bertsolari, abeslari eta ikus-entzuleen txoko bihurtuko da Plateruena gaur. Izan ere, irakurketez gainera musika emanaldiak eta bestelako sorpresak ere egoten dira errezi-taldien tarte batzuetan.

Gaurkoa jendaurreko irakurraldiaren bosgarren edizioa izango da dagoeneko. Azken hiletan, gainera, tailerrak eta berbaldiak ere jorratu dituzte.

### Maiatzaren 4an

#### TRAÑA-MATIENA **jaiak**

- **16:45** Txiki merienda, merkatu plazan.

- **17:30** Oliver magoa, merkatu plazan.

- **19:00** Txiki Txef Zigor Iturrietagaz.

- **22:00** Bertso saioa Errota kultur etxean. Bertsolariak: Aitor Mendiluze, Miren Artetxe, Txaber Altube eta Aitor Bizkarra. Gai-jarraitzailea: Igor Galarza

- **22:30** Karaokea, Traña plazan.

**DURANGO antzerkia**  
**'Zugan Ni' antzezlana,**  
**Gazteen Antzerki**  
**Jaialdiaren baitan,**  
19:00etan, San Agustin kulturgunean.

**DURANGO literatura**  
**'Hitzez eta Ahotsez'**  
**etenik gabeko**  
**irakurketa,** 17:00etan,  
Plateruenean.

#### **GARAI deialdia**

**'Gazta Zati Bat'**  
**pelikularen emanaldia;**  
**ostean, txokolatada**  
**eta ekainaren 10eko**  
**giza katerako metroen**  
**salmenta.** 20:00etan,  
Elizabarrin.

#### **ZORNOTZA antzerkia**

**'Ulisesen Bidaia'**  
**Gorakada taldearen**  
**eskutik,** 20:15ean,  
Zornotza Aretoan.

### Maiatzaren 5ean

**ELORRIO urteurrena**  
**Goizaldi dantza**  
**taldearen ikuskizuna,**  
**Besaide dantza**  
**taldearen urteurren**  
**jaiaren baitan,**  
18:00etan, Arriolan.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [kultura@anboto.org](mailto:kultura@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

## Muted rock taldearen itzulera, bereziki etxekoa izango den jaian

**MUSIKA** | Muted rock talde abadiñarra iaz berragertu zen Durangoko Plateruena kafe antzokian, urteetako isiltasuna apurtuz. Aurreko hamarkadan bizitako momentu gozoak desiratzen, musika-tresnak hartu eta berriro eszenatokietara bueltatzea erabaki zuten. Bihar, etxean eskainiko dute emanaldia, Traña-Matienako jaietan. Txosnagunean iragarri duten kontzertuan etxeko beste talde bi ere izango dituzte bidelagun: Eskupitajo eta Baske Street Boys.



### TRAÑA-MATIENA jaiak

Goizean, paella txapelketa, merkatu plazan.

- **10:00** Kickboxing opena Traña-Matienako kiroldegian.

- **12:30** Iluntze taldearen dantza ekitaldia.

- **16:00** Ugasixo txapelketa, merkatu plazan.

- **16:30** Umeen betiko jolasak, merkatu plazan.

- **17:00** Txapito Guzman & Ibarako Langostinuek, merkatu plazan.

- **17:00** Mus txapelketa, merkatu plazan.

- **17:30** Tortilla txapelketa, merkatu plazan.

**23:00** Jaialdia Trañabarren etorbidean: **Malassia**

**23:00** Kontzertuak, Traña plazan: **Muted, Baske Street Boys eta Eskupitajo**

### Maiatzaren 6an

**DURANGO musika**

**Unax Nogaren kontzertua.** 13:00etan, Plateruenean.

### TRAÑA-MATIENA jaiak

- **12:30** Kontzertua elizan, Jaizale Durangaldeko txistularien elkarreagaz.

- **13:00** Kanta Jira: Done Zezili abesbatza eta Trikileku taldeagaz.

- **13:00** Perretxiko pintxoan dastaketa, Pino plazan.

- **14:00** Jubilatuen bazkaria

- **17:30** Azahar eta De Norte a Sur taldeen erakustaldia, Traña plazan.

- **20:00** Donien Atxa kentzea.

**Errota Kultur Etxean:** kartel lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa bat egingo da apirilaren 23tik maiatzaren 7ra bitartean.

**ELORRIO musika**

**'Astonauta Tronpeta Flauta' kantaldia** Arriolan Txatxi programaren baitan. 17:00etan, Arriolan.

### Maiatzaren 7an

**ZALDIBAR hitzaldia**  
**'Bizitzaren amaiera: Heriotza eta doluari buruz hitz egiten' tailerra Zaindu programaren eskutik (Izena emateko: [durangaldea@zaindu.eu](mailto:durangaldea@zaindu.eu) edo 94 603 00 46).** 17:00etan, liburutegi zaharrean.

### Maiatzaren 8an

**DURANGO Hitzaldia**  
**Immigrazioaren gorakada** Xabier Aierdiren eskutik 18:00etan, Jesuiten aretoan

### Maiatzaren 10ean

**DURANGO emanaldia**  
**'Mendi Tour 2018' filmearen emanaldia** Kiolene Film Fest jaialdiaren baitan, 18:00etan, San Agustin kulturegunean.

### Maiatzaren 11n

**DURANGO emanaldia**  
**'Sherezade y las capas de la cebolla' antzezlan,** 20:30ean, Arriolan.

**DURANGO emanaldia**  
**'Oxigenoa Euskarari 6.000 metrotan' hitzaldia Felipe Uriarteren eskutik. Ostean, jaialdiaren sari banaketa eta film laburren proiektzioa,** 20:00etan, kultur etxean.


### Maiatzaren 12an

**BERRIZ musika**  
**Maria Rosa Calvo-Manzanoren kontzertua,** 20:00etan, Kultur Etxean.

### Maiatzaren 13an

**BERRIZ musika**  
**Ouzo Bazooka taldearen kontzertua,** 20:00etan, Kultur Etxean.

**DURANGO erakusketa**  
**'Durango jaietan' argazki erakusketa,** San Agustingo sarreran.



## Zinema

**:: Berriz**  
KULTUR ETXEA

**La Tribu**

barikua 4: 18:15  
domeka 6: 19:00

**:: Durango**  
ZUGAZA

• **Vengadores. Infinity Wars**

barikua 4: 22:00  
zapateria 5: 17:30/21:00  
domeka 6: 17:15  
astelehena 7: 20:30

• **12 Valientes**

barikua 4: 19:00/22:00  
zapateria 5: 17:00/19:45/22:30  
domeka 6: 18:00/20:30  
astelehena 7: 18:30/21:00  
martitzena 8: 20:00  
eguaztena 9: 20:00

• **Noche de Juegos**

barikua 4: 19:30/22:00  
zapateria 5: 22:30  
domeka 6: 18:00  
astelehena 7: 18:30  
martitzena 8: 20:00

• **Campeones**

barikua 4: 19:30  
zapateria 5: 17:00/19:45  
domeka 6: 20:30  
astelehena 7: 18:30/21:00  
martitzena 8: 20:00  
eguaztena 9: 20:00

**:: Elorrio**  
ARRIOLA

• **Matar a Jesus**

zapateria 5: 22:00  
domeka 6: 20:00  
astelehena 7: 20:00

**:: Zornotza**  
ARETOA

• **Un Lugar Tranquilo**  
zapateria 5: 19:30/22:00  
domeka 6: 20:00  
astelehena 7: 20:15

• **El Americano**  
domeka 6: 17:00

# “Ez dakit larregi eskatzea ez ote den, baina mundiala litzateke hardcore kultura jendartera zabaltzea”

Bost abestiko lana kaleratu du Stronger Together taldeak, KDan, kasetean eta digitalean; Estoldetan grabatu dute, Jon Chavesen gidaritzapean



MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Mutikotatik zainetan daramate musika Eneko Bacetak, Unai Basetak eta Arkaitz Bereziartuak. Musika bizi dute, eta heldutasunera iritsitakoan hardcore talde bat sortzeko indarra, gogoa eta denbora atera ditzutela da horren adierazle. 2016tik Stronger Together moduan hara eta hona dabiltza kontzertu indartsuak eskaintzen. Iaz, Gaizka de la Torre batu zitzaizen bateria jotzeko, taldearen sortzaile izan zen Raul Morenoren partez. ‘Stronger Together’ 5 abestiko lana kaleratu berrikan, kontzertuen bidez hardcore kultura barreiatzen jarraitzen dute, nola ez,

musikagaz disfrutatzen jarraitzen duten bitartean.

“Aspalditik genuen hardcore talde bat sortzeko gogoa, baina ez genekien instrumenturik jotzen”

Nolatan sortu zenuten taldea?

Eneko Baceta: Hardcore talde bat sortzeko gogoa genuen aspalditik.

Kontzertu askotara joan izan gara beti, eta, azken aldian, Berriz Hardcore Crew mugimenduaren bueltan ibili gara. Aspalditik genuen talde bat sortzeko gogoa, baina ez genekien instrumenturik jotzen. Raul bateri ikasten hasi zen, eta ni, gitarra. Tontoka-tontoka hasi ginen, eta, ostean, Unai batu zitzaigun.

Unai Baseta: Raulen aitaren fabrikari hasi ginen entseatzen. Hiruzpalau kanta egituratuta geneuzkalla, Arkaitz hasi zen etortzen. Gero, Berrizko entsegu lokaletara mugitu ginen, eta han gehiago ikasi genuen, talde ugari daude eta. Beste proiektu batzuk zirela-eta, Raulek

taldea utzi zuen, eta Gaizka etorri zen bateria jotzera.

Zergatik Stronger Together?

“Elkarregaz indartsuagoak garela uste dugu; hori da gure filosofia, eta horregatik deitzen gara horrela”

Arkaitz Bereziartua: Elkarregaz indartsuagoak garela uste dugu, hori da gure filosofia, betidanik.

U.B.: Izena taldea sortu aurretik dator, lelo bat da guretzat.

E.B.: Gaztetan txabola egiten duzunean bezalakoa da. Egitura egin aurretik, jada pasahitza erabakitzen duzu [barrez]. Izen oso ona iruditzen zaigu, oso hardcore-a, eta mezu polita islatzen duela iruditzen zaigu. Azken finean, hasieran ez genekien ia ezer egiten, eta egindako lanari esker eta jarritako ilusioagaz hau guztia sortu dugu.

EPa ere ‘Stronger Together’ deitzen da. Zer aurkituko du entzuleak bertan?

E.B.: Guk ‘Bihotzeko Hardcorea’ deitzen diogu egiten dugunari. Hardcoreaz dugun ikuspuntua transmititzen saiatu gara, hau da, guri entzutea gustatuko litzazukeena eskaintzen. Eskola zaharreko hardcoretik asko edan dugu eta igartzen da. Pisutsuak dira gure doinuak, eta ukitu punkia ere badute, berehalakotasunean eta jarreran oinarritzen direlako.

U.B.: Nahasketa hori daukate abestiek. Eta flow-a ere badute, nahiko dantzagarriak dira abestiak. Guk dantza asko egin izan dugu mosh pit-eant, pogoan, eta hori da sortu gura izan duguna. Hori islatzen da kantuetan. Hasieran sortu genituen abestien bilduma moduko bat bat ere bada; genituen hamar abestien erdiak grabatu ditugu.

Zer moduz grabatzen? Batzuentzat lehenbiziko aldia izan da, oker ez banago.

U.B.: Hasieratik argi genuen bost abestiko lana izango zela. Orokorrean, joera hori dago hardcorean, eta, bestalde, ez genuen ez dirurik, ez denborarik ez gogorik gehiago egiteko.

E.B.: “Goazen probatzera eta ea zer irteten den”, esan genuen. Eta hor Jon Chaves sartu zen jokoan. Gu grabatzeko gogoa zuela esan zigun, eta guk ere bagenuen gogoa beragaz egoteko.

ELORRIO  
ARRIOLA ANTZOKIA  
MAIATZAK 12  
17:30

Aitor Esteban Etxebarria  
Ander Elortegi Garatea  
Iker Uriarte Urrutia  
Jon Arano Uriarte  
Ander Anakabe Lekue  
Unai Agirre Erezuma

bbt18  
Bizkaiko Bertsulak Topriketa 2018

Antolatzailea



Babesleak



Laguntzailea





# Maiatza dantzan igaroko du Besaide dantza taldeak, mende erdiko ibilbidea ospatzeko

Elorrioko dantza taldeak 'Maiatza Dantzan' ekitaldi sorta antolatu du, 50 urteko ibilbidea ospatzeko; bihar, zapatua, Goizaldi dantza taldeak ikuskizuna eskainiko du Arriolan



Hamaika ekimenetan parte hartu du Besaide dantza taldeak urteotan.

## DANTZA • A.M.

Besaide dantza taldeak mende erdi beteko du dantzan. Urteetan egon diren erreleboei esker, Elorrioko hainbat belaunaldi igaro dira dantza taldetik, eta ekitaldi sorta baten bidez, urteotan Besaidetik igaro diren taldekideak omendu gura dituzte. Orain 5 urte, 45. urteurreneko ospakizunetan, 300 lagunetik gora bildu ziren, eguraldiak asko lagundu ez zuen arren, eta aurten-

goan ere beste horrenbeste biltzeko lanean aritu dira azken asteetan taldekideak.

Horrelako ekimenak dantza taldeak egiten duen ezkutuko lana erakusteko baliagarriak ere badira.

**Maiatzaren 26an urteurren jaia ospatuko dute, mende erdiko ibilbidea birbiltzeko**

Izan ere, urtean zehar hamaika ekimenetan parte hartzen du taldeak: auzoetako jaietan egiten dute dantzan, umeen dantzari jaietan parte hartzen dute, eta herriko hainbat elkartek antolatutako ekimenetan ere bere aletxo utzi izan du Besaidek.

## Maiatza dantzan

50. urteurren berezi hau ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu ditu

Elorrioko taldeak hilabete honetarako. 'Maiatza Dantzan' leloagaz, euskal dantzari loturiko ekimen sorta prestatu du. Bihar, zapatua, ekingo diote ospakizunei, Goizaldi dantza taldearen ikuskizunagaz;

**Maiatzaren 19an, urteotan ateratako argazkiekin erakusketa bat egingo dute, plazan**

**45. urteurren jaialdian 300 lagun bildu ziren; aurten beste horrenbeste batzea gura dute**

Arriolan izango da hori, 18:00etan. Maiatzaren 12an, ostera, euskal dantzei buruzko tailerrak egingo dituzte EMEk antolatu ohi duen azokaren baitan. Mende erdiko ibilbideak askorako eman die Besaide taldeko kideei. Bestalde, urteotako ibilbide luzean bildutako argazkiekin erakusketa bat egingo dute maiatzaren 19an. Memoria bilduma hori egun osoan zehar egongo da ikusgai, plazan.

Urteurreneko ekitaldi nagusia, ostera, maiatzeko azkeneko zapatuan izango da. Egund osoko egitaraua prestatu dute urteurren jaialdirako.

## Geure Durangaldea

Garazi Arrizabalaga Cabrerizo Durangoko museoa



## Agur memoria

Orain dela egun batzuk galdera bat egin zidaten: iraganera joan ahalko bazina, zein bi pertsonaiekin izango zenute elkarriketa bat? Hasieran burura etorri zitzaizkidan izenak idazleena, artistena, politikariena izan ziren. Baina ondo pentsatu eta gero, beste pertsonaia batzuekin hitz egitea gustatuko litzaidakeela pentsatu nuen. Egia esan, nire bizitzan zehar hitz egin izan dut haiekin, baina orain ezin dut.

Nire amama eta aititerek hitz egin nahiko nuke eta hainbat galdera egingo nizkien, aurretik, agian umea nintzelako, pentsatu ere ez nituenekin egin: zelakoa izan zen haien haurtzaroa, nolakoa izan zen gurusoak espetxera eramane zitu zuteneko momentu hura, zer jaten zuten, zerekin jolasten ziren, etab. Galdera arruntak dira, bai, ez dira galdera filosofikoak edo sakonak. Baina nire familiaren historia ulertzeko balio dute.

Izan ere, gure gertuko historiaren pertsonaia joan egiten dira, eta memoria galtzen da. Nahiz eta memoria hori gordetzen saiatu, ez da inoiz berdina izango, guri kontatutakoa guk kontatzea edo lehenengo pertsonan azaltzea. Honek ez du esan nahi ez dugula memoria hori gorde behar, ezta gutxiago ere. Haien hitzak bizirik mantentzea da gure lana. Baina egia da, apurka-apurka gertuko historiaren argi batzuk amatatzen ari direla.

Gaur egun erraza dirudi egiten dugun guztia gordetzea, egun bakar batean milaka argazki egiten ditugu. Egiten dugun guztia partekatu egiten dugu. Agian, etorkizun hurbil batean, iraganaren informazio asko izango dugu. Bitartean, saiatu gaitez gure historia ez ahazten.

## Durangaldeko hiru bertsolari Balmasedako kanporaketan

### BERTSOLARITZA • A.M.

2018ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udabarriko Faseko hurrengo saioa Balmasedan izango da, domekan, 17:30ean. Egund biribila izango da, izan ere, egitarau zabala prestatu dute antolatzaileek. Balmasedako kanporaketan Durangaldeko hiru bertsolari arituko

dira: Aitor Bizkarra abadiñarra, Jon Ander Urkiaga zornotzarra eta Beñat Molina durangarra.

Joan den astean Gautegez-Arteagan jokatu zen kanporaketan Igor Galarza abadiñarra laugarren geratu zen, 158 puntugaz. Julen Ibarguengoitia izan zen irabazlea, 173 puntugaz.



Gautegez-Arteagako kanporaketan laugarren geratu zen Galarza.

CERAMICAS  
**MACOBER**  
MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN  
Chimeneas  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA  
ZERAMIKA ETA GRESA  
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com  
liburudenda

#nobedadeak

HELDUENTZAT  
**EMAKUME BURUGABEA**  
Antxiñe Mendizabal & Iraia Okina  
(2018)

UME ETA  
GAZTEENTZAT  
**TXORI BATEN PORTRETA EGITEKO**  
Prévert & Gerstein  
(2018)

**NI NAIZ IZOTZ ERREGINA**  
La Basu  
(2018)



# Ostalaritza gida

anboto

 **Durango**



**GORA GORA**  
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO  
**Tel.: 946 8111 384**

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

 **Durango**



**KOBIKA JATETXEA**  
San Ignazio, 8 - DURANGO  
**Tel.: 946 810 003**

Egile sukaldaritza eta tradizionala. Menu bereziak eta karta.

 **Durango**



**PLATERUENA** Kafe Antzokia  
Landako etorbidea, 4 - DURANGO  
**Tel.: 946 030 300 - www.plateruena.eus**

Bokatak, pintxoak... Azoka egunetan bertako produktuekin egindago menu berezia karpan. Giro paregabea!

 **Muxika**



**ASTEI JATETXEA**  
Muniketa auzoa 8, MUXIKA  
**Tel.: 946 732 318**

Bataioak, jaunartzeak, ezkontzak... Enpresa bazkariak. Eguneko menua.

 **Durango**



**IBAIZABAL KAFETEGIA**  
Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO  
**Tel.: 946 550 185**

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

 **Abadiño**



**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
**Tel.: 944 657 790**

Eguneko menuak eta asteburuak menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

# Estetika gida

anboto

 **Estetika zentroa** PSE: 36/16



**Ana Camarero**  
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

LIPO-ESKULTURA TRATAMENTUA, ANTIZELULITIKOA  
%20ko deskontua

Lehen 300€ orain 240€

Plaza limitatuak  
Maiatzaren 13rarte

Golenkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango  
Tel.: 946 817 380 • www.anacamarero.com  
Zentrua ed. 36/16

## Buztinak eta osasuna

Jon Sopelana

**IUNIK | Ile-apaindegian dituzten azken nobedadeez hitz egin du Jon Sopelanak.**

### Zelakoak dira buztinak?

Buztinak produktu oso espezializatuak dira profesionalentzat; aktibo botaniko oso puruez osatuta daude. Ilearen kanpoaldeko geruzak pigmentatuta, kanpo erasoz babesten dugu, eta bere energia errespetatu. Zure ileak ez du bakarrik itxura naturala edukiko, naturala izango

da. Aplikazioa guztiz pertsonalizatua da.

### Natura ere kontuan hartzen duzue, ezta?

Naturatik hartutako testurek irudi sentikorra lantzeko inspiratzen gaituzte. Koloreei dagokienez, materia gainjartzea bilatzen dugu, ile osasuntsua eta bizitzaz betea lortzeko.

### Ileaz aparte, estetika ere lantzen duzue.

Estetikako kabina martxan daukagu. Depilazioak, bioterapia, azazkalak, masaje lasaigarriak... eskaintza asko ditugu. Iuniken edertasun osasuntsuaz daukagun ikuspuntua ezagutzera gonbidatuta zaudete.

 **Ile-apaindegia**



**IUNIK**  
ILEAPAINDEGIA  
Antso Estegiz, 1  
DURANGO  
Tel.: 946 216 491

**Ile-apaindegia**



**NUKLEO**  
ileapaindegia

**946 582 996**  
Nizeto Urkizu, 14 behea  
ELORRIO

# “Dozena bat film labor jasota pozik geundekeela esaten genuen eta kopuru hori bikoiztu egin dugu”

Kirola eta natura uztartuz Kirolenek abiatutako film laburren lehiaketak espero zutena baino harrera hobea izan du

**JAIALDIA • JOSEBA DERTEANO**

**Kirol irakaskuntzarako ikastetxe publikoak Kirolene Film Festival jaialdia antolatuko du maiatzaren 11rako, Durangon. Besteak beste, orain hile bi inguru abiatutako film laburren lehiaketako sariak banatuko dituzte. Kimetz Iturralde Kiroleneko irakaslea ekimeneko antolatzaileetako bat da.**

**Zenbat film labor aurkeztu dituzte?**

30 bat jaso ditugu. Oinarriak betetzen dituztenen *teaser*-ak Kiroleneren webgunean ikusi daitezke.

**Gustura zaudete lehiaketak izan duen harreragaz?**

Bai. Dozena bat film labor jasota pozik geundekeela esaten genuen eta kopuru hori bikoiztu egin dugu. Lehiaketa eta jaialdia prestatzeak lan handia eskatzen du, baina izan duen erantzuna ikusita, merezi du. Pozik gaude.

**Askok lehiaketa honen bidez jakingo zuten Kirolene Durangon dagoela.**

Ni durangarra naiz eta ia sortu zenetik Kirolenerako lanean nabil. Durangon ez da askorik ezagutzen, hori egia da. Kanpora begira ezagutara eman gura genuen Kirolene eta, aldi berean, Durangori zerbitzu bat eskaini.

**Maiatzaren 11rako antolatuko duzuen Kirolene Film Festival jaialdian banatuko dituzue sariak. Zer aurkituko du bertaraten denak?**

Sari banaketaren aurretik, Felipe Uriarte mendigoizaleak bere proiektuaren berri emango du *Oxigenoa euskarari 6.000 metrotan ere* hitzaldian. Gazte euskaldun batzuekin Himalayara joango da

zeharkaldi bat egiten eta seimilako mendi bi igoko ditu. Euskal Herriaren eta sherpa herrialdearen arteko hartu-emanak indartzea du helburu. Hitzaldiaren ostean, sari banaketa izango da. Ekitaldia astuna izan ez dadin, bitan zatitu dugu, kaferako atsedena hartuz. Ekitaldi dinamikoa izan dadin saiaturara, eta gure babesleek emandako sari batzuk zotz egingo ditugu. Azkenik, luntxa egongo da denentzat. Ekitaldia Gatazka musikagileak girotuko du.

**Aurreko egunean, maiatzaren 10ean, film laburren erakustaldia egongo da.**

Bilbao Mendi Film Festivaleko lau film labor ikusi ahal izango dira, horietako hiru iaz saritu zituztenak. Eurak laguntzaile izan ditugu proiektu honetan. Ikus-entzunezkoen arloan eta ekitaldiak antolatzerakoan esperientzia dute eta euren gaitasuna jo genuen. Egueneko emanaldiek ekimenaren egun bitara zabalduko dugu eta eskaintza oparagoa izango da.

**Sarrerak non eskuratu daitezke?**

Durangoko Arte eta Historia Museoa lortu daitezke. Hiru euro da egueneko film laburren emanaldirako sarrera eta bost euro hurrengo eguneko jaialdikoa. Bigarren eguneko sarrera erosten duen bako-

“**Lehiaketa eta jaialdia antolatzeak lan handia du, baina erantzuna ikusita, merezi izan du. Pozik gaude**”



**Kimetz Iturralde Mardaras**  
Kiroleneko neguko kirolen ardura  
Durango | 1981

tzak Ordino-Arcalis estazioan eskiatzeko pase edo *forfait* bat jasoko du erregalu moduan. Babesle bati esker lortu ditugu. Egun bietarako sarrera zazpi euro da.

**Kirolenen neguko kirolen ardura zara. Zer eskaintza duzue arlo horretan?**

Neguko kirolerako departamentuan modalitate bi daude: eski alpino eta *snowboard*-a. Mendi eta eskalada departamentuarekin sinergia estua dugu. Izan ere, goi mendia praktikatzeko duenak mendiko eskian trebea izan behar du.

**Sasoi batean, Valdezcaray, Formigal, Ordino Arcalis eta beste hainbat eski estazioetan lan egin zenuen. Orain irakaskuntzan murgildurik zaudete. Orduko bizimoduko zeren falta sumatzen duzu?**

Lehen poz-pozik joaten nintzen alde batetik bestera, ordutegi finkorik barik. Hileak ematen nituen kanpoan. Baina, egia esanda, irakaskuntzak beste gauza batzuk ematen dizkizu.

**Adibidez?**

Zure jakintza eta esperientzia beste transmititzea, esaterako. Ikasle batek ez badu gozatzen ez da bueltatuko. Eskolak ematen dituzten nire ikasleei esaten diet: “Gogoratu eskiatzen ikasi zenutenean zer suposatzen zuten zuentzat, zer sentipen eragin zizkizuen”. Gaur egun, kirol irakaskuntzak badu metodologia bat eta horri gizatasuna gehitzen badiotzu, ikaslea gustura etorriko da. Ni asebate egiten nau horrek. Adibidez, Formigalen eski klubeko ardura nintzen. Unibertsitate arteko Unibertsitate olinpiadak egin ziren eta herrialde askotako jendea etorri zen. Egun haietan aita-eme errusiar parek ezagutu nuen. Semea itsua zen, ez zekien ingelesez eta inork ez zituen hartu gura. Neuk irakatsi nion eta erronka bat izan zen. Astebetean hartu-eman itzela egin nuen biekin. Unibertsitate hartan zer gertatu zen ia ez dut gogoratzen, baina aita-eme haiena ondo gogoan dut.

## EGITARAUA

**Maiatzak 10, San Agustin Kultur Gunea**

- 18:30ean: Bilbao Film Festivaleko lau film labor: ‘Where the Wild Things Play’, ‘Mama’, ‘The Frozen Road’ eta ‘Safety Third’.

**Maiatzak 11, San Agustin Kultur Gunea**

- 17:00etan: Ateak irekiko dira.
- 17:30ean: Felipe Uriarteren hitzaldia: ‘Oxigenoa euskarari 6.000 metrotara ere’.
- 18:00etan; Lehiaketako sari banaketa.
- 20:30ean; Cateringa, Gora Goraren eskutik.

**urtxintxa**  
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

**uxarte**  
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815  
www.uxarte.com

ZABALIK OSTIRALETAN ETA ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR ENKARGUZ  
Gutxienez 15 laguneko taldeentzako

# 40 urte beteko dira Javier Elorriagak Espainiako Itzuliko etapa gogoangarria irabazi zuela

1978ko maiatzaren 6an txirrindulari abadiñarrak Espainiako Itzuliko etapa bat irabazi zuen. Hiru asteko itzulietan aurreneko garaipena izan zuen 'Lebarioko erbia'-k

## TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO

1978ko Espainiako Itzuliak azkonarra eta Lebarioko erbia izan zituen protagonistetako bi. Goitizen horiekin ezagutzen ziren Bernard Hinault eta Javier Elorriaga (Abadiño, 1947) txirrindulariak. Urte hartan, azkonarrak aurrenekoz irabazi zuen Espainiako Itzulia eta Lebarioko erbia-k bere palmaresa estreinatu zuen hiru asteko itzulietan. Montjuicen amaitu zen etapa irabazi zuen. Egun hartatik 40 urte beteko dira domekan.

Aurreko urteko Espainiako Itzulian toki berean amaitu zen etapa bat, ondo ezagutzen zituen azkenengo kilometroak eta bazekien zer egin behar zuen. "Etapa amaierari neurria hartuta nion. Bartzelonara heldu eta Montjuicerako igoerari ondo eutsi nion. Horrelako igoerak ondo pasatzen nituen. Esprinter batzuk atzean geratu ziren. Ondoren, azken zuzengunearen aurretik eskuma alderako bihurgune bat zegoen eta bihurgunera sartu aurretik jo nuen eraso. Banekien eraso zein unetan jo behar nuen eta ondo irten zitzaidan", gogoratu du abadiñarrak. Bizikleta bateko alde atera ziren aurkariei. Argazkian, Elorriagaren eskumatara, Daniel Suarez Cuevas asturiarra eta Elorriagaren taldekide Eula-

lio Garcia ikusi daitezke, besteak beste. Begirada zorrotza duenak Txomin Perurena ere bereiziko du atzealdean.

**Aurreko urtean toki berean amaitu zen etapan ikasi zuen eraso jotzeko toki aproposa zein zen**

**Javier Elorriaga: Banekien eraso zein unetan jo behar nuen eta ondo irten zitzaidan"**

Urte hartan Teka taldean zebilen Elorriaga. Espainiako Itzulia lehiatzeko moduko txirrindulariak zituzten, Eulalio Garcia eta Miguel Mari Lasa, esaterako. Euren laguntza zen Elorriagaren lana, baina etaparik etapa sortzen ziren aukerak aprobetxatzeko askatasuna ere bazuen eta horixe egin zuen Montjuiceko etapan.

## 1980an, bigarren etapa

Javier Elorriagak 157 podium eta 40 garaipen lortu zituen bere ibilbidean. Horieta bi Espainiako Itzulian izan ziren. 1980an lortu



Bere ibilbidean, 157 podium eta 40 etapa garaipen lortu zituen Elorriagak.

zuen bigarrena. Etapa kuriosoa izan zen. Hotz "ikaragarria" egiten zuen arren, Freddy Maertens eta bere taldekideak mahuka-hutsean ikusi zituen. Horregatik, hasieratik erasora irtengo zirela susmatu zuen. "Kendu berokiak", esan zien Elorriagak taldekideei, bera ere mahuka-hutsean jarrita. Susmatu moduan, egurrean hasi ziren, aurrera egin zuten eta Elorriagak jarraitu ahal izan zien. Lasterketan zehar, mendate gain bat iragartzen zuen pankarta gainera jausi zitzaion haizearen ondorioz eta erori egin zen. Jaiki, eta lasterketan jarraitu zuen. Aurretik ihesi zihoana harrapatu, eraso jo eta bakarrik egin zituen helmugaraino zeuden 60 kilometroak.



Javier Elorriaga Montjuiceko etapan helmugara heldu zen unea.

## Asteko kirolaria



ZIORTZA ISASI CRISTOBAL

Elorrio, 1995

Sopela Team taldeagaz dabilenetik, aurreneko garaipena lortu du txirrindulari elorriarrak.

## "Burgosko Itzulian dena biribil irten zaigu, espero genuena baino hobeto"

Burgosko Itzuliko lehenengo etapa irabazi du Ziortza Isasi txirrindulari elorriarrak

### Zelan joan zen lasterketa?

Zirkuitu bati hiru itzuli eman behar genizkion. Bigarrenetan, mendate bat igo ostetxoan, aurrera egin nuen beheranzkoan. Ondoren, Enara Lopez taldekidea eta Bizkaia-Durango Colborne batu zitzaizkidan, eta azken itzulia elkarrekin egin genuen. Azken txanpan banekien Colborneren gupila zaindu behar nuela. Helmugara orduko aldapan eutsi egin nion eta

azken metroak aproposagoak ziren niretzat, apur bat beherantza zelako. Gogor jo eta irabazi egin nuen.

### Zure taldearentzat ere ezin hobea izan da Burgosko Itzulia.

Bai. Hiru etapa garaipen, sailkapen nagusia eta taldekako sailkapena irabazi ditugu. Lehenengo etaparen ostean lider jarri nintzen, baina banekien itzuli gogorra zela, ez niretzako modukoa, eta taldeki-

deentzat lan egin beharko nuela. Bigarren etapan, neukan dena eman nuen laguntzeko eta etapa irabazi genuen, baina liderraren elastikoa Bizkaia Durango-Murias Team taldeko batek jantzi zuen. Beraz, hirugarren egunean, etapa garaipenaren bila baino, sailkapen nagusiaren bila irten ginen. Hasieran, Sara Martin zen gura aukera nagusia. Hiru taldekidek aurrera egin zuten eta, ondoren, Martinek

gugaz bat egitea zen plana. Baina aurrekoak alde handitzen joan ziren eta hirurak helmugara heldu ziren. Etapako hiru aurreneko postuak eta Bea Gomezegaz sailkapen nagusia irabazi genituen. Dena biribil irten zitzaigun, espero genuena baino hobeto.

### Pistan jarraituko duzu?

Bai, aukera dudaren artean bietan jarraituko dut. Errepidea asko gustatzen zait, baina atzera begiratu eta nire ibilbidea erreparatzen badugu, helbururik handienak pistara begirakoak izan dira. Laster hasiko dira txapelketak. Aurten zail izango dut, ez naizelako 23 urtez azpikoa izango, baina saiatu, behinik behin, saiatuko gara.

## “Sekula ez dut areto-futboleant jokatu, baina ikasteko gogoz nago”

Mendibeltz areto-futbol taldea emakume bila dabil talde berria sortzeko; Garazi Cuadrado da animatu denetako bat

### ARETO-FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Probatu ezik ez da jakiten eta Garazi Cuadrado Angoitiak (Elorrio, 1992) probatzea erabaki du. Taldekako kirolean esperientzia barik, Mendibeltzen proiektu berrira batu da. Emakume nahiko batuz gero, Durangaldeak areto-futbol talde berri bat izango du hurrengo denboraldian.

Momentuz, hiru-lau jokalarik batu dituzte eta gehiagoren bila dabilta. Ez dago areto-futboleant artista izan beharrik, eta hasiberriak direnentzat zabalik dute atea. Cuadrado bera da horren adibide bat. Mutil-lagunak Mendibeltzen jokatzen du eta emakumeen talde berria sortzeko lanean zebiltzala jakitean, animatzea erabaki zuen. “Sekula ez dut areto-futboleant jo-

katu eta, batez ere, teknika aldetik errespetu apur bat ematen dit, baina ikasteko gogoz eta motibatuta nago”, adierazi du elorriar gazteak.

Bere motibazioen artean, emakumeen kirola sustatzeko nahia ere badago. “Proiektu positiboa eta interesgarria iruditzen zait Durangaldeko emakumeen kirola sustatzeko. Gu ikusita, neska gazteak kirol hau probatzera animatu daitezke”, azaldu du.

### Izen-ematea

Izen-ematea hasita dago. Interesa dutenak Mendibeltzen sare sozialean (Instagram eta Facebook) bidez jarri daitezke, besteak beste, hartu-emanetan. Atea zabalik dute, Durangaldekoentzat zein handik kanpokoentzat.



Proiektu interesgarria iruditzen zaio emakumeen kirola sustatzeko.

### Adituaren txokoa

Koikili Lertxundi del Campo  
Futbolari ohia eta enpresaria



### Irregularitasunaren derbia

Aurreko asteburuan Donostian jokatutako derbiak zapo txarra utzi dit, ez soilik emaitzagarri, bi taldeek egindako jokoak ere agerian utzi baitzituen urte osoan biek izandako gorabeherak. Izan ere, jokaldi erabakiorretan gabeziek gaitasunek baino distira handiagoa izan zuten.

Egia esan, partida aurretik itxaropentsu nengoen, Realak entrenatzaile aldatetarekin bat etxean emandako maila nahiko altua izan delako eta Athleticek azken bi irteeretan (Madrigal eta Bernabeu) erakutsitakoa aintzat hartzekoa izan delako.

Baina ez bata ez besteak ez zuten aurkaria jokoaren bitartez luzaroan gaindizterik izan. Eta horrelakoetan estrategiazko jokaldiek berebiziko garrantzia izan ohi dute. Eta hor bai, txuriurdinak nagusi izan ziren, beraiek ere horrelako jokaldietan majo sufritu arren. Nire ustez, Athleticek hiru arazo nagusi izan zituen. Lehenbizi, faltak, alboko sakeak eta kornerrak ekiditeko arazoak; bigarrenik, hauek defendatzeko kontzentrazio maila ez oso fidagarria. Azkenik, Canalesek ezker hankan duen talentua.

Kontuak kontu euskal derbia Realak eraman zuen. Athletici, aldiz, aurtengo zaplaztekoen motxila astunean beste harri pisutsu bat sartu zaio.

Hori bai, ene ustez mingarriena Iñigo Martinezek eta taldekideek autobusetik atera orduko jasotako irain zaparrada izan zen. Irain oso gogorak, errespetu bakoak, hiltzeko desioak entzuteraino.

Badirudi egungo gizartean eta kirolean balio garrantzitsuak zaintzen ari direla, baina errespetuaren baitan badaukagu zer egin. Publikoa subiranoa da, bai, baina zenbait marra pasatzea ez genuke onartu behar!

## Durango-Elorrio errugbi taldea Euskadiko azpitxapeldun geratu da

### ERRUGBIA • J.D.

Burua ondo goian dutela ibiltzeko moduan daude Durango-Elorrio Nissan Gaurisa errugbi taldeko gazteak. Joan zen zapatuan Zarautzen kontra jokatutako Euskal Ligako finala ikusgarria izan zen eta

eskualdeko taldeak azken unera arte irabazteko aukera izan zuen. Azkenean, Zarautz nagusitu zen, 25-19. Egunean bertan Elorrioko udaletxean harrera egin zieten jokalariei, denboraldi osoan emandako maila eskertzeko.



Durango-Elorrio errugbi taldeko gazteak.

## Mallabiko gazteek Bizkaiko talderik onena osatzen dute areto-futboleant



25 partidutan 228 gol sartu dituzte Mallabiko gazteek.

### ARETO-FUTBOLA • J.D.

Gazte Mailan Bizkaian dagoen ligarik inportanteena irabazi du Mallabiko areto-futbol taldeak. 25 partidutan 228 gol sartuta, Bizkaiko Lehen Mailako talderik

indartsuena izan dira. Orain, Euskadiko txapelketako azken fasea jokatuko dute Gipuzkoako eta Arabako talderik onenen kontra. Maiatzaren amaieran izango da hori, Zaldibarko kiroldegian.

**Adinara Urreta Jainaga**  
OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

**IMQ** **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

**katerin ardoak**  
**iñaki uribe**  
**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
**saltsan.com**

**Zure iragarkia jarri nahi duzu?**

**94 621 79 02**

**anboto** komunikabideak





## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU**  
**GOZOTEGI-OKINDEGIA**  
Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozaturango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Gontzal (718. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



"Zorionak, **Lurtxo**, astelehenien esku bete urte beteko dozuz! Primeran pasau eguna! Mosu handi bat etxeko danon partez!"



**Naiarek** eta **Garazik** maiatzaren 5ean 6 urte bete dabez. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez! Gure txikitxoak haunditzen ari dira!"



"Zorionak, **Paula**! Gure etxeko dantzari finak 12 urte. Musu piloa denon partetik."



Zorionak, **Aingeru!** 14 urte bete zenituen apirilaren 27an. Mosu handi bat zure familiaren partez, batez be aitepuntako eta amapuntakuen partez.



Apirilaren 28an hiru urte bete zenituen, **Xabat**. Zorionak, mutil handi! Maitxe zaitxuen danen partez.



Zorionak, **Peru!** Maiatzaren 6an 4 urte beteko dozuz. Muxu handi bat etxekuen partez!



Zorionak, **Oier!** Amama Mari Carmen, aittitte Valentin, eta gurasoen partez.

## Botikak

<b>BARIKUA, 4 - 09:00-09:00</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>	<b>09:00-14:00</b>	<b>09:00-22:00</b>
<b>MELERO, ROSA MARI</b>	<b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>09:00-22:00</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>EGUAZTENA, 9 - 09:00-09:00</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>	<b>DOMEKA, 6 - 09:00-09:00</b>	<b>MUGICA</b> Andra Maria 9 - <b>DURANGO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>GAZTELUMENDI</b> J.A. Abasolo 2 - <b>DURANGO</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>MELERO, ROSA MARI</b>	<b>09:00-22:00</b>
<b>ZAPATUA, 5 - 09:00-09:00</b>	San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - <b>DURANGO</b>	<b>09:00-22:00</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>MELERO, ROSA MARI</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>EGUENA, 10 - 09:00-09:00</b>
San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>ASTELEHENA, 7 - 09:00-09:00</b>	<b>ETXEBARRIA</b>
<b>09:00-13:30</b>	<b>BAZAN DIAZ</b> Uribarri 5 - <b>DURANGO</b>	Montevideo etorb. 2. - <b>DURANGO</b>
<b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>GAZTELUMENDI</b> J.A. Abasolo 2 - <b>DURANGO</b>	<b>09:00-22:00</b>	<b>09:00-22:00</b>
<b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - <b>DURANGO</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>BAZAN DIAZ</b> Uribarri 5 - <b>DURANGO</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>BALENCIAGA</b>	<b>MARTITZENA, 8 - 09:00-09:00</b>	
Ezkurdi plaza 8 - <b>DURANGO</b>	<b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22. - <b>DURANGO</b>	
<b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22. - <b>DURANGO</b>		
<b>SAGASTIZABAL</b>		
Askatasun etorb. 19 - <b>DURANGO</b>		

## Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 15° / 8°	DOMEKA 🌧️ 24° / 13°
ASTELEHENA 🌧️ 24° / 13°	MARTITZENA 🌧️ 22° / 14°
EGUAZTENA 🌧️ 22° / 13°	EGUENA 🌧️ 25° / 13°

## Eskela



Jesus Maria

Zuazubiskar Zengotitabengoa

'Lastur' betiko egongo zara zure senideen bihotzean

**anboto**  
komunikabideak

**ALBERDI**  
HARATEGIA



ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

